

Elkarrizketa
politikoak

OTXANDIO



"Gaztetxe aurreko proiektua gauzatzen hasi gura dugu, 10 etxebizitza dotazional eta anbulatorio berria eginda"

Otxandio • Hirigintzako proiektuez gainera, arlo sozialeko erronken garrantzia azpimarratu du Egoitz Garmendia Otxandioko alkateak. Pertsona nagusien beharrezan zeintzuk diren identifikatzeko, 80 urtetik gorako 101 herritarrekin banan-banan batu gura dutela aurreratu du. • 2-3

Atxondoko eskolan euren sukaldaria izatea lortu dute



Atxondo • Urte askotako borrokaren ondoren, sukaldaria inauguratu dute Atxondoko eskolan. Ikastetxeko arduradunek, gurasoek eta Berton Bertokoa dinamikak mugarri bat ipini dute eskola elikaduraren eredu aldatzeko bidean. Inaugurazioan Atxondoko jatetxeetako sukaldariak ere egon ziren. • 6



Gorka Pagonabarragak laugarren amaitu du Bizkaiko Bertsolari Txapelketa

Bertsolaritza • Gorka Pagonabarraga bertsolari durangarrak laugarren amaitu du Bizkaiko Bertsolari Txapelketa; Nerea Ibarzabalek jantzi zuen txapela. Durangarrak ale txukunak utzi zituen eta aurreko txapelketan baino seguruago ibili zen. • 25

Datorren denboraldian, Oliveirak pistari emango dio lehentasuna




Txirrindularitza • Café Dromedario Flotamet taldeko Izero Oliveira txirrindulari gazteak denboraldi bikaina egin du aurten. Europako eta Munduko txapelketetan parte hartu du, besteak beste. Orain, erronka berri bat du. Eustrak-Euskadi pistako taldeagaz goi mailan aritzea du helburu. • 26

Pinturaz eta poesiaz jantziriko liburu intimoa



Zornotza • Begoña Artabe eta Juanlu Artabe neba-arrebek 'Oinatzak koloreetan' liburua kaleratu dute. Begoñak margolanak egin ditu eta Juanluk testuak idatzi ditu. Kontakizun intimoa da, Luis Urrengoetxea kaleko etxean bizirik kontuak eta familia bizipenak izan dituzte-eta oinarri. • 5





Egoitz Garmendia Vera

Otxandioko alkatea
(EH Bildu)

OTXANDIO | 1980

“Ur hornidura sarean inbertitu izan ez bagenu, azkenengo udatan ez genuen urik edukiko”

Gaztetxe aurreko orubean anbulatorioa eta etxe dotazionalak eraikitzea zein herritarrekin komunikazio kanalak zabaltzea dira Egoitz Garmendiaren lehentasunetarikoz batzuk

OTXANDIO • JONE GUENETXEA

Egoitz Garmendiak bigarren legegintzaldia hasi du Otxandioko alkate karguan. Hurrengo hamarkadan Otxandio herri bizia izan dadin zeintzuk beharrian dituzten hausnartuta ekin diote legegintzaldi berriari.

Zer moduz legegintzaldi hasiera?

Aurreko lau urteetan helburu bat geneukan: hurrengo hamar urteei begira Otxandiok herri bizia izate aldera dituen erronkak definitzea eta ardatz horiek argi izanda lan egitea. Hori eginda, praktikan ipintzen hasi gara eta bueltan herriaren babes handia jaso dugu. Oinarri horiek ipinita, ideiak argi edukita heltzen diogu legegintzaldiari.

Lantaldea indarberrituta dugu eta askoz ere esperientzia handiagoa daukagu, aurreko legegintzaldian talde berria ginen eta. Beraz, momentu onean gaudela uste dut.

Legegintzaldiari begira, zeintzuk dira proiektu nagusiak?

Batzuk proiektu fisiko zehatzak dira, hirigintzari loturikoak, baina beste asko herri prozesuari loturikoak dira. Hirigintzari lotuta, proiektu nagusi bi daude. Lehenengo, Gaztetxe aurreko proiektua gauzatu gura dugu. Orube horretan 10 etxebizitza dotazional eraikitzea da gure asmoa, eta azpiko solairuan udalarentzat geratzen den espazioan anbulatorio berria eraikitzea. Zonalde hori guzti hori

urbanizatu egingo litzateke. Hori logika baten barruan doa. Aurreko legegintzaldian plaza guztia eraberritu genuen eta erdigunea hiritartzen amaitu eta gero eskolako zonaldean bigarren proiektua joango litzateke; kirolgune berria eraikitzea, hiru elementu nagusiren barruan: futbol zelai berria, pump track pista bat eta kalistenia zonalde bat.

Eta alde sozialetik, zeintzuk dira helburuak?

Beste lan lerro batzuk beharbada ez dira hainbesteko inbertsioak izango ekonomikoki, baina gure iritzian aurreko obren besteko inportanteak dira. Jasagarritasunari lotuta, zehaztuta daukagu hurrengo 10-15 urteetarako baso plana; aurten aplikatzen hasiko gara. Baso publikoetan eragiteko neurri batzuk dira. Komunitate energetikoa bultzatzea eta horren bueltan udal eraikin guztietako eta udal argiteriako efizientzia hobetzea. Kanpoko energiagazko dependentsia murritzea da helburua. Uren kudeaketa ere erronka da.

Arlo sozialean, hainbat parte hartze kanala ipini duzue martxan. Zein helburugaz?

Zaintzaren inguruan proiektu bat daukagu eta herriko nagusiekin banan-banan alkartuko gara. Aurten diagnostiko fase bat egitea da gure asmoa. 80 urtetik gorako herritar guztiekin batu gura dugu. 101

lagun dira. Horretarako, herriko profesionalekin osaturiko talde bat daukagu. Zelan dauden ikusi gura dugu, zein zerbitzu erabiltzen duten, zelan gustatuko litzaiekeen zainduak izatea etorkizunean, zeintzuk gabezia ikusten dituzten gaur egun jasotzen dituzten zerbitzuetan. Beharrian horien arabera, instituzioekin loturiko zerbitzuetan eta herritarren zaintza sareetan zer garatu gura dugun ikusiko dugu. Guretzat lehentasun handi bat da. Oraingoz dirurik eskatu ez arren, oso inbertsio humano handia eskatzen du.

80 urtetik gorako 101 herritarregaz batu gura dugu, zeintzuk beharrian dituzten jakiteko

Bestalde, hainbat eremutan parte hartze kanala berriak martxan ipini gura ditugu. Otxandio herri hezitzaileen sarean sartu da eremu bitan: haurren eta nerabeen parte hartzean. Haurren kasuan, iaz haurren kontseilua martxan ipini zen, udalaren eta eskolako ikasleen asanbladako kideen artean. Hainbat kontseilu egin dugu. Dinamika bat sortu da euren berba kontuan hartzeko. Nerabeekin berdina egi-

ten hasi gara orain. Espazio horretan, Txatxilipurdi elkarteagaz batera, nerabeen arloa landu gura dugu. Beste perspektiba batetik, zenbait saiakera egin dugu gazteen lerroan, eta ez dugu ondo asmatzen. Entzuketara ariketa bat egiten ahalegindu ginen eta ez genuen asmatu. Hori berdefinitzen gabiltza, eta berriro gabiltza hainbat gazteagaz biltzen, komunikazio kanala egon dadin.

Herritarren oinarrizko beharrianak asetzeko, 11Lore elkarte dago. Elkartearen eta udalaren artean orain arte planteatu ditugun lan lerroetan sakondu gura dugu. Elikagai bankua, EPAko klaseak, formakuntza migratzaileentzat eta baita bertakoentzat ere, beharrian ekonomiko larria duen jendearentzat eskolaz kanpoko jarduerak kubritzeko.

Amaitzeko, legegintzaldi honetan Berdintasun Plana berriztu gura dugu eta Mugimendu Feministagaz batzen hasi gara.

Zelan doaz aurtengo aurrekontuak?

Herri batzarra egin dugu eta Ogasun Batzordean aurkeztu dugu. Urte amaierarako astean plenotik pasatzea eta onartzea da gure asmoa.

2024ra begira, nora bideratu gura dituzte inbertsioak?

Inbertsiorik handiena solapatuta doazen lan bik eramango dute: lehenengo udaletxeko, gaztetxeko eta nagusien egoitzako berokuntza sistemak biomasan oinarrituriko

bero sare bategatik aldatzea izango da. Europako Funtsetako diru laguntza deialdi batera aurkeztu ginen eta diru laguntza inportante bat jaso genuen. Bigarrena Elixosteko urbanizazioaren hasierako fase bat egitea izango da. Sorginestrada kalea eta Zine Zaharreko orubetik Ospital kalera dagoen tartea urbanizatuko ditugu, etxebizitzaren blokearen obra datorren urteko bigarren zatian hastea aurreikusten dugulako. Elixosteko urbanizazioaren hurrengo faseak etxebizitzaren blokeen eraikuntza amaitzen denerako utziko ditugu. Bestalde, diru laguntza ebazpenen arabera, udaletxean igogailua ipintzeko eta udal argiteria aldatzeko asmoa dugu. Dirutan inbertsio txikiagoa izan arren, guretzat garrantzitsua den proiektuetariko bat Oreakomunitate energetikoarena da. Udala egitasmo horren parte da eta datorren urtean lehenengo instalazio fotovoltaikoa egingo litzateke industrialdean, eta hor ere udal bere parte ipiniko du.

Gaztetxe aurreko orubearen proiektua aipatu duzu. Zeintzuk ezaugarri ditu?

Alde batetik, etxebizitzaren eraikuntza, eta, bestetik, ambulatioaren eraikuntza eta baita urbanizazio guztia ere. Legegintzaldi hasieran, 2020ko urtarrilean hitzarmena sinatu genuen Etxebizitza Saila-

gaz, hamar etxebizitza dotazional eraiki eta beheko solairua udalarentzat uzten zuena, bertan ambulatioa egiteko. 2022ko abenduan eman genion obra baimena Eusko Jaurlaritzari. Esan digutenez, exekuzio proiektua eginda daukate eta hurrengo urte hasieran ipiniko dute martxan obren lizitazioa.

Dotazionalak direla diozunean, zein etxebizitza ereduri buruz zabilta?

Lehenengo blokea ez da familientzat. Hiru bloke adostuta daude, ikusita alokairuaren eskaintza murrizta dela. Bloke bat dotazionala da, etxebizitza txikiekin gazteentzat, bikotean edo bakarka. Aurrerago garatuko liratekeen beste bloke biak familientzat izango lirateke.

Saso gogorra da merkatari txikientzat. Zein da Otxandionen egoera?

Une honetan Otxandion oinarriko komertzioekin dugun arazoa da dendak zabaldu zituztenak jubilatzeke sasoian daudela. Eta errelebo generazionalik ez bada, komertziorik barik geratuko gara: harategirik barik, arrandegirik barik, okindegirik barik...

Zer egin dezakegu erreleboa bultzatzeko?

Arazo konpartitu bat duten neurrian, dendariak eta ostalariak elkarte bat sortu behar dutela uste dugu, horrela bitarteko gehiago izango dutelako euren interesak



defendatzeko. Konpromisoa hartu genuen urtero kontsumoa sustatzeko kanpaina egiteko. Eta orain, lokalen arazoari irtenbidea emateko, diru laguntza bat martxan ipini dugu alokairuagaz laguntzeko. Herri txikia gara, oso bizia. Faktore bat kokapena da. Mugan gaude, apur bat aparte. Horrek arrisku bat ere badauka. Herri bizi horren zutabe bat jausten bada, inork ere ez digu bermatzen hamar urte barru ere herri bizia izango dela. Jendea hemen bizitzen geratzeko, ele-

mentu diferentzial bat izan behar dugu, eta hori herri nortasunaren parte sentitzea da.

Ur hornidura sarea udalak kudeatzen du. Zein hausnarketa egiten duzue?

Hamasei urtean uraren gastua gutxitu egin da, konponketak egin ditugulako. Ur hornidura sarean inbertitu izan ez bagenu, azkenengo udatan ez genuen urrik edukiko. Prebisioak dira ur emaria %20 inguru bajatuko dela aurten, eta momentu batzuetan %50 ere bai. Kudeaketa guztia geuk egiten

dugu eta sare hori zaintzea oso garrantzitsua da guretzat.

Zelan doaz Anteparaluzeta auzoko radarra, zebrabidea eta bidegorria?

Obra eginda dago, bidegorria, argiztapena eta autobus geltokia ere bai. Barne Sailak radarra ipintzea geratzen da, eta, hori eginda, hile batzuk joan behar dira trafikoa-aren abiadura murrizteko. Orduantxe ipini ahalko lirateke zebrabidea eta semaforoa. Lehenengo, abiadura jaitsi behar da radarren bitartez.

GABON HAUETAN OPARITU TOKIKO INFORMAZIOA



OPARITU ANBOTO!
ETA BALIATU GURE ABANTAILEZ

30€
urtean!



946 816 558

www.anboto.org | anbotokide@anboto.org

Teilatua berritzeko lanak direla eta, Musika Eskolak Udal Euskaltegiaren egoitzan egingo du 2024-2025 ikasturtea

Teilatu osoa berritzuko dute: teila guztiak, hezurdura osorik eta sabaiaren iragazkortasuna. Musika Eskola lekuz aldatuko dute behin-behinean, obrek irauten duten bitartean. Udalak milioi bat eurotik gorako inbertsioa egingo du

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Durango Udalak Bartolome Ertzilla Musika Eskolako teilatua oso-osorik berritzuko du: teila guztiak, hezurdura osorik eta sabaiaren iragazkortasuna. Hori dela eta, obrak eta musika ikasketak aldi berean egitea bateraezina denez gero, Musika Eskolaren jarduna beste norabait lekualdatuko dute: Udal Euskaltegiaren egoitzara. Mireia Elkoroiribe alkateak adierazi du "guztiz beharrezkoa" dela eraikineko teilatua konponetzea, gaur egun "hainbat parte hondatuta" dagoelako barruko ikaslegetan eta korridoreetan. Era berean, alkateak argitu du "behin-behineko" lekualdatzea izango dela, aurreikuspenen arabera 2024-2025 ikasturtera mugatuko dena. Lanak amaituta, Montevideo kalera bueltatuko da Musika Eskolaren jarduna.

Isabel Balanzategi Musika Eskolako ikasketa burua da. Jakinarazi duenez, "itoginak" dituzte eraikineko hainbat lekutan, eta "sabaiko isolamendu panelak lurrera jausi

izan dira teilatuaren egoera txarraren ondorioz". Udal Euskaltegiaren izango duten behin-behineko kokalekuari buruz, "txarto ez" dagoela iritzi dio Balanzategik: "Konponduko gara".

Musika Eskolako teilatua berritzeko proiektua joan zen legegintzaldiko gobernu taldeak diseinatu zuen, milioi bat euroko aurrekontuagaz. Sara Oveja alkateordeak zehaztu du "prezioak egokitu" egin

beharko dituztela, "aurreikuspenen arabera, beste 50.000 euroko gehigarriagaz". Obrak udaleko aurrekontuaren soberakinagaz eta Musika Eskolako aurrekontuaren soberakinagaz finantzatzeko dituzte.



Durango Udalaren Bartolome Ertzilla Musika Eskola.

Durungaldeko Etxebizitza Sindikatuak etxegabetzei begirako tresnak sortu ditu

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Durungaldeko Etxebizitza Sindikatu Sozialistak adierazi du dagoeneko hasita dagoela etxegabetze arriskuan dauden bizilagunei arreta eskaintzen. "Aholkularitza zerbitzua" eta "alokairu kontratuen aldaketei, prezioen igoerei eta higiezin agentzien abusuei" aurre egiteko baliabideak ipini dituzte martxan. Diotenez, eskualdean gertatzen diren etxegabetzek "ez dute inolako oihartzunik sortzen", nahiz eta, "iaz, prozedura judicial bidezko etxegabetzeak bakarrik kontuan izanda, 15 etxegabetze izan ziren eskualdean". 2013tik hona, 222 kasu egon direla jakinarazi dute.

Diotenez, "prezioen gorakadak, oztopo burokratikoek eta filtro arrazistek geroago eta gaxago egiten dute etxebizitza eskuratzea", eta egoera horrek "herritarrik zaugarrienak" kalteztzen ditu gehien. Hartu-emanetarako, 747 408 923 telefonoa eta es.durungaldea@gmail.com helbide elektronikoa ipini dituzte.

Landako Eskolako guraso elkarteak kritikoa Muruetatorren ez delako zentro zibikorik egingo

Gobernu taldea "erratu" egin dela irizita, erabakiagaz "atzera egitea" eskatu du elkarteak



Landako Eskolako ataria.

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Durango Udalak Muruetatorre dorretxean zentro zibikorik ez egiteko erabakia hartu zuen, eta Landako Eskolako gurasoen elkarteak bere desadostasuna agertu du. Elkartearen iritziz, "gobernu taldea erratu egin da eta atzera egin beharko luke". Euren iritzia "ez kontsultatzea" leporatu diote udalari, eta "barkaezintzat" jo dute "hainbeste jende landu eta aldarrikatu dituen zentro zibikoak

suntsitzea". Guraso elkarteak adierazi du hasita zegoela eremu berri horretan egin zitezkeen ekintza posibleak planifikatzen, baserria erabilgarri egoteak eskola ordu-tegiak ekarri ditzakeen mugak gainditzea zekarrelako, hain zuzen ere. Plan aldaketaren ondorioz "kalteak izango dituzten auzotarrekin eta elkarteekin batzea exijitu" diote gobernu taldeari.

Mireia Elkoroiribek kritika horiei erantzun zien astelehen goizean hedabideekin eginiko agerraldian. "Egia da eta zintzoki diogu ez zitzaigula burutik pasatu ere egin guraso elkarteagaz batzea, beti uste izan dugulako guraso elkartearen jarduna eskola eremura mugatzen zela. Argi utzi gura dugu gurasoen

elkarteak garrantzitsuak direla guretzat. Landako Eskolakoak ez genituen zentro zibikoagaz lotzen. Ez genekien Muruetatorren ekintzak egiteko asmoa zutela. Eurekin

Guraso elkarteak dio hasita zegoela dorretxean egin zitzaizkiren ekitaldi posibleak antolatzen

batu eta beharrianak aztertuko ditugu, ahal den neurrian erantzun bat emateko", azaldu zuen alkateak. Elkoroiriberen berbetan, bilera Gabonen ostean egitea eskatu zuen gurasoen elkarteak.

anboto

Gertuko Koop S.,
Gizarte Ekimenekoa

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902

2023ko abenduaren 22a
22. urtea - 962. alea

Lege gordailua:
BI-2268/01
ISSN:
1578-7028
Tirada:
12.000 ale



Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua

Durangok etxebizitza bat gehiago izango du bazterkeria egoeran daudenei eskaintzeko

Durangoko Udalak eta Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Kohesiorako Sailak lankidetzaz hitzarmena sinatu dute



Aldundiko eta udaleko arduradunak, zaurgarritasun egoeran daudenentzako etxebizitza batean.

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Itun horri eskerrak, Durangoko Udalak bere jabetzako etxebizitza bat eskuragarri ipiniko du bazterkeria egoeran dauden edo etxerik ez duten herritarrentzat. Etxebizitza lau urterako izango da eskuragarri, eta beste lau urtez luzatzeko aukera eskaintzen du. Erabaki hori Aldundiak martxan daukan *Habitat Bizkaia* programaren parte da. Administrazio publikoak 30 etxebizitza eskaintzen dizkie etxebakoei, eta, aurrerantzean, Durangoko hau programa horretara batuko da. Teresa Laes-

pada Enplegu, Gizarte Kohesio eta Berdintasun Saileko foru diputatua da eta *Habitat Bizkaia* programaren aldeko apustua berretsi du: "2016an zazpi etxebizitza ipini ziren martxan erabiltzeko, eta orain 30 etxebizitzako kopurura heldu gara. Programak hazten jarraitzen du". Egunotan, Oscar Seco Gizarte Inklusioa Sustatzeko zuzendari nagusiak, Durangoko Udaleko Mireia Elkoroiribe alkateak eta Jessica Ruiz alkateordeak *Habitat Bizkaia* programak Durangon daukan etxebizitzetariko bat bisitatu dute.

Sarek mobilizazioa egingo du abenduaren 29an, Andra Marian

Elkarretaratzea hileko azken barikuan izango da, 20:00etan

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Sarek urteko azken barikuko mobilizazioa egingo du euskal presoan eta iheslarien eskubideen alde. Elkarretaratzea abenduaren 29an izango da, Andra Marian, 20:00etan. Durangoko mobiliza-

zioa urtarrilaren 13an Bilbon egitekoa den *Konponbiderako Giltzak* manifestazioaren aurrekari izango da. Bilboko martxa 17:00etan hasiko da, Casillan. Autonomia kalean aurrera egin, eta udaletxe parean amaituko da.



Begoña Artabe egin ditu liburuan jasoriko koadroak, eta Juan Luis Artabe testuak.

Artabe neba-arrebek 'Oinatzak Koloreetan' liburua kaleratu dute

Begoña Artabe eta Juan Luis Artabe neba-arreba zornotzarrek euren bizipenekin landuriko pintura koadroak eta poesiak jaso dituzte 'Oinatzak Koloreetan' liburuan

ZORNOTZA • EKAITZ HERRERA

Margolanak ipini ditu batek. Poesia testuak besteak. Eta argitalpen "hunkigarri eta intimoa" izan da batuketa horren emaitza. Begoña Artabe eta Juan Luis Artabe zornotzarrek *Oinatzak koloreetan* liburua argitaratu dute, euren bizitzako

eta familiako istorioekin eraturiko argitalpen intimoa. "Begoña arrebak margolan batzuk eginda zeuzkan, eta nik poesia ipini diet irudi horiei", azaldu du Juan Luis Artabe. "Liburuko bigarren zatian alderantzizkoa egin dugu. Nik poema batzuk nituen idatzita, eta



Liburuaren azala.

testu horiei margolana ipini die Begoñak. Hirugarren zatian gure gurasoei buruzkoak jaso ditugu", gaineratu du zornotzarrek.

Juan Luis Artabe adierazi du familiako istorioak intimoak izan arren, horiei ikuspegi unibertsal bat ematen ahalegindu direla. Neba-arreba biak Luis Urrengoetxea kaleko etxe batean jaiozkoak eta hazirikoa dira, eta han bizirikoa izan dituzte oinarri. Juan Luis bera kale horretan bertan bizi da gaur egun ere. "San Juan jaiak, familia arteko istorioak, internazionalismoa, Sahara, bizitzari buruzko hausnarketak... elementu solteak dira guztiak, baina gu bizi eta hazi ginen kale horretan ikusi eta bizirikoa", esan du Artabe. Liburu intimoa neba-arreben ama zenaren azken berbak jasota zarratu dute.

Begoñak eta Juan Luis Zornotzako Besue elkartearen egoitzan aurkeztu zuten liburua, joan zen domekan. Bizilagunek eskainiriko epelean eta jaio ziren kalean bertan kokaturiko kultur eremuan.

Zubikurtze, Zubipunte eta Zubizabala lotzeko ibilbidea, lizitaziora

Ingurua nabarmen hobetuko dela iritzi dio udalak

ZORNOTZA • EKAITZ HERRERA

Zornotzako Udalak lehiaketa publikora atera du Zubikurtze, Zubipunte eta Zubizabala auzoak lotzeko dituen oinezko ibilbidea egiteko obra. Lanak 101.179 euroko aurrekontuagaz atera dituzte

lizitaziora. Obrak egiteko epea hile biko izango da, esleipena egiten denetik hasita. Udalak udaberriari hasi gura ditu lanak.

Anartz Gandiaga hirigintza zinegotziak aurreratu du pasealekua metro bi zabal izango

dela, eta egurrezko zintarri bi izango dituela alde banatan, ibilbidearen maila berean. Udal iturriek azaldu dutenez, obrak "ingurune berdea auzoetara zabaltzea" ahalbidetuko du, eta, horrenbestez, "nabarmen hobetuko dira zornotzarren bizi kalitatea eta irisgarritasuna". Ainhoa Salterain alkateak adierazi du obrak "lotura bat" sortuko duela herriko erdiguneagaz, "lurralde kohesioa" indartuta.

Erabili meloia Gorde erosketa-tiketa

Kontsumitu buruarekin

#KontsumitzenJakin



f t i www.kontsumobide.eus

kontsumoBIDE
KONTSUMOKO EUSKAL INSTITUTUA
INSTITUTO VASCO DE CONSUMO

Euskadi, auzolana, bien común
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Urte askotako borrokaren ondoren, sukaldia inauguratu dute Atxondoko eskolan

Joan zen barikuan egin zuten sukaldia inauguratzeko ekitaldia Atxondoko Eskolan, abenduak 15

ATXONDO • EKAITZ HERRERA

Lapiko hotsak, bideoklipak, flashmob bideoak, Hezkuntza Sailagaz Gasteizen eginiko bilerak, herriko plazan eginiko protesta otorduak... Durangaldeko beste hainbat herritan legez,

Atxondon bide luzea egin dute eskola elikadura eredu berri bat aldarrikatzen, eta eredu hori herriko ikastetxean txertatu dadin borrokatzen. Bada, joan zen barikuan, azkena izango ez den baina berria baden mugarrira ipi-

ni zuten: eskolak bere sukaldia du jada.

"Eskerrak eman gura dizkiegu ibilbide honetan lagundu diguten denei. Eskolako zuzendaritzakoei, eta irakasle eta langile guztiei, gure ondoan bidelagun izan direlako eta gure aldarrikapenak eurenak egin dituztelako", azaldu dute guraso elkarteko kideek.

Inaugurazio ekitaldian ikasleak, gurasoak, eskolako arduradunak, Bertan Bertokoa dinamikako kideak eta Atxondoko jatetxeetako sukaldariak egon ziren. Sukaldarien artean, honako hauek: Akebasoko Iñigo Maguregi, Mendigoikoa Bekoako Jon Iñaki Yurrebaso, Etxosteko Ane Gallastegi eta Txispa jatetxe-ko Tetsuro Maeda.



Inaugurazio ekitaldiko argazkia.

Zelaieta Herri Eskolako irisgarritasuna hobetzeko lanak dagoeneko amaituta

Zelaieta Herri Eskolako lanek 125.969 euroko aurrekontua izan dute. Lan hauek Eusko Jaurlaritzaren 2023ko Jolastoki Inklusiboak programaren diru laguntza jaso dute

ABADIÑO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Dagoeneko amaitu dituzte Zelaieta Herri Eskolako irisgarritasuna hobetzeko lanak. Udaletik azaldu dutenez, Zelaieta Herri Eskolako barruko sarbidea berriro urbanizatuta irisgarritasuna hobetzea izan da helburua. Horretarako, desnibelak kendu eta oinezkoek erabiliko duten plataforma bakarra osatu dute.

"Jarduketa hau oso garrantzitsua zen eta berehala egin behar zen, diru laguntza ez galtzeko. Urtea amaitu baino lehenago amaitu da eta hori albiste ona da Abadiñoarentzat", azaldu du Naiara Bidosola Hezkuntza eta Euskara arloko zinegotziak.



Zelaieta Herri Eskolako argazkia.

Eroskiko biltegian azpikontrataturiko langileek akordioa lortu dute

ELAren esanetan, 2025erako soldata %22,94 igotzea adostu dute; hau da, urtean 22.618 euroko soldata izatea

ELORRIO • A.M./M.Z.

Eroskiko biltegian azpikontrataturiko langileek beharginak, Cecosa Hipermercados SL enpresagaz lan egiten dutenak, greban egon dira, "prekaritateari amaiera emateko". ELA sindikatuak jakinarazi duenez, aste honetan akordioa lortu dute. Sindikatua- ren esanetan, 2025erako soldata %22,94 igotzea adostu dute; hau da, urtean 22.618 euroko soldata izango dute. Bestalde, lanaldia

1.770 ordutik 1.700 ordura murrizko zaie langileei; langileek antzinatea ere kobratuko dute.

ELAK langileek zoriondu gura izan ditu. "Beste adibide bat da erakusteko aldarrikapena eta greba tresna beharrezkoak eta erabilgarriak direla prekaritate egoerei eta enpresen gehiegikeriei aurre egiteko. Berriro ere ondozortatu dezakegu borrokatzea merezi duela", azaldu du ohar baten bitartez.



Cecosako langileek Elorrioren egindako manifestazioko argazkia.

Herritarren aurrean Danona Gobernu Plana aurkeztu dute, asteon, Elorrioren

Hamahiru arlotan banaturiko 103 proiektuak laburtu zituzten



Astelehenean egin zuten aurkezpena Iturri kultur etxean.

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Astelehen arratsaldean, udal gobernu taldeak Danona Gobernu Plana aurkeztu zuen jendaurrean. Hau da, datozen lau urteetarako gidalerroa. Bertan, hamahiru arlotan banaturiko 103 proiektuak laburtu zituzten

batzordeburuek. Proiektu horien artean, honako hauek azpimarratu daitezke: haurreskola berria datorren ikasturterako prest egotea, Montorra eremuko 140 etxebizitzak, eta Hiri Antolamendurako Plan Orokorra, besteak beste.

ELORRIO • JOSEBA DERTEANO

Eroski konprometitu dago kalitate handiko elikagai osasuntsuekin eta ekoizpen modu jasangarriekin. Laster, ezaugarri horiek betetzen dituen produktu berri bat merkaturatuko du: Elorrioko Delikatetxe kooperatibagaz lankidetzan eginiko oilo salda. Proiektuak EIT Food-en sostengua du, elikagaien sektoreko berrikuntzan puntakoa den Europako erakundearena. Delikatetxe Xabier Gorrotxategik Elorrioko enpresako ateak zabaldu dizkigu, oilo saldari eta beratu ekoizteko teknologia jasangarriari buruz berba egiteko.

Pozik zaudete Eroskigaz duzuen lankidetzagaz?

Gure produktuak Eroskin saltzen dira eta oso pozik gaude lankidetzaz honeguz. Eroskik Seleqti'a zigilupean aterako du. Produktu berria da. Pasteurizaturiko oilo salda egiten dugu, hau da, ekoizpen prozesua 100 gradutik behera egiten da. Oilo salda berrian, ostera, esterilizazio prozesua darabilgu, hau da, 100 gradutik oso gorako tenperaturekin gabiltza lanean. Zein den tenperatura hori? Sekretua da, denbora asko inbertitu dugu eta ahalegin handia egin dugu prozesu horretan. Mimo handiz eginiko ikerketa da. Prozesu horren guztia- ren emaitza kalitatezko oilo salda zaporetsu eta osasungarria da. Basque Culinary Center-egaz ere lanean gabiltza eurek kalitateari ematen dioten onespina lortzeko. **'Oilo zaharrak saldarik onena', dio esaerak.**

Eta egia da. Oiloa ez da oilaskoa bezain mamitsua, baina zapore gehiago du eta baita proteina gehiago ere. Ez hori bakarrik. Guk darabiltzagun oilo guztiek animalien ongizate ziurtagiria dute eta horrek haragiaren nahiz koipearen kalitatea oso ona izatea bermatzen du. Horrez gainera, oilo salda bera zein hemen ekoizturiko elikagai guztiak glutenik bakoak dira.

Lehengia, oiloa bera, nondik lortzen duzue?

Euskaber kooperatibatik. Denek animalien ongizate ziurtagiria dute eta kalitatezko arrautzak ekoizten dituzte. Kontua hau da: zer egin oiloagaz arrautzak erruteari uzten dionean? Galdera horri erantzuteko sortu genuen Delikatetxe. Ekonomia zirkularraren ereduari jarraituz, erabilpen bat ematen diogu oiloari. Eusko Label arrautzetarako eta arrautza ekologikoetarako erabiltzen dituzten oiloak hartzen ditugu. Zertarako? Prozesu osoan kalitatearen bermeari eusteko. Gertuko oiloak dira, Eusko Label zigiludunak Euskal Autonomia Erkidegokoak, eta Reyno Gourmet zigiludunak Nafarroakoak. Aprobtxamenduaren ereduari jarraitzen diogu gainerako produktuekin oilo salda egiteko: azenarioak, porruak...



Xabier Gorrotxategi Sanchez
Delikatetxe kooperatiba
BILBO | 1974

“Probatu dutenek etxeko saldagaz lotu dute gure oilo salda berria eta ez dago hori baino konplimendu hoberik”

Etxeko oilo salda, modurik jasangarrienean ekoiztua. Zaporea eta ingurugiroagazko errespetua, produktu berean bateratuta. Eroskik bere zigilupean salduko du, laster, Elorrioko Delikatetxe kooperatiban ekoizturiko produktu berria

Baditugu osagai denak. Zelakoa da elaborazioa?

Oiloa eta barazkiak garbitu eta lapikoan sartzen ditugu, eta aipatu dudan prozesua hasten da. Prozesu honetan, koipea guztiz bereizten dugu saldatik. Koiperik bako salda da. Horregaitik du etxeko saldak izaten duen kolore arrea. Azkenik, ontziratu egiten dugu.

Bezeroekin dastatzeko antolatutuzue feedback-a lortzeko eta produktua are gehiago fintzeko. Zelan joan dira?

Gure produktua merkaturatu den besteekin alderatzea zen hel-

burua. Baina hori egin beharrean, denek euren etxeko saldagaz konparatzen zuten gurea, horixe gogorarazten zuelako. Gure oilo salda probatu dutenek etxeko saldagaz lotzen zuten zaporean, eta ez dago hori baino konplimendu hoberik guretzat. Koloretik bertatik hasita, etxeko salda gogorarazten du.

Kalitatezko oilo salda osasuntsua, baina ez edozein prezioan. Kate osoan garrantzi handia ematen diozue ekoizpen jasangarriari.

Bai, jasangarritasuna funtsezkoa da guretzat. Alde batetik, energia

lortzeko moduari dagokionez, energia berriztagarriak erabiltzen ditugu. Bestetik, energia modu efizientean erabiltzeari garrantzi handia ematen diogu. Azkenik, autokontsumoa ere azpimarratuko nuke gure oinarrien artean.

Zeintzuk dira helburu horiek lortzeko mekanismoak?

Hiru sistema bereiztu ditzakegu. Lehenengoa ura berotzeko sistema da. Erantzun beharreko lehenengo galdera hau da: Zertan erabiliko dugu energia? Erantzuna da: ura berotzen. Beraz,

zein da ura berotzeko modurik jasangarriena eta efikazena? Eguzki panelak. 6.000 litro ur berotzeko, lan konkretu horretarako, panel fotovoltaikoak baino eraginkorragoak dira. Beraz, eguzki panelen bidezko energiak berotzen du ura. Ondoren, ur beroa, duen tenperaturaren arabera, geruza desberdinetan gordetzen da biltegian. Modu horretara, geruzatan banatuta eta termodinamikaren legeei jarraituta, kaloria kopuru gehiago mantendu dezakegu. Baina eraginkortasuna ez da hor amaitzen. Berotasuna serieko lau bero-trukagailuren bitartez transmititzen da depositutik lapikora. Horrela, gradu bat besterik ez dugu galtzen transmisioan. Hori efizientzia ikaragarria da.

Zeintzuk dira gainerako sistema biak?

Teilatuan panel fotovoltaikoak ditugu. 46 kilowattera arteko energia ekoiztu dezakete. Ekoizten denaren zati handi bat hotzari eusteko darabilgu. Ia beti 0 gradutik gorako hotza behar dugunez, hotz positiboa deitzen dena, ur glikolatu bidezko hozte sistema ezarri ahal izan dugu. Modu horretara, uraren bitartez transmititzen dugu hotza, eta ez gas baten bitartez. Lehenengo abantaila hau da: 0 gradutik gorako tenperaturekin gabiltzanez, sistema honen bitartez energia aurrezten dugu. Abantaila gehiago: galerarik badago, besteentzat gas-ihesa dena guretzat itogin bat da. Horrez gainera, sistemaren ezarpena iturgintza lanetako ohiko instalazioa da eta, beraz, ekonomikoagoa. Gainera, gasek ez bezala, ez du presio handirik behar lanerako. Ondorioz, ez du aparteko mantentze-lanik behar eta sistema iraunkorragoa da.

Bestalde, kantinetan salda kuzinatzekeko energia lurrun-galdara batek sortzen du. Beste lan batzuetarako ere erabiltzen dugu energia hori. Dena kontuan hartuta, kontsumo energetikoa oso urria da. Azkenik, aurrezteko beste modu bat ere plazaratu gura nuke, energia aurrezteko modurik onena: ez kontsumitzea. Gure ekoizpen sistemari eskerrak, beste ekoizle batzuek baino prozesu gutxiago behar dugu oilo salda ekoizteko. Aurrezten dugun prozesu bakoitzaren efizientzia energetikoa da.

Baduzu beste ezer gehiagorik esateko?

Oilo salda hau erosten duenak gauzak egiteko modu bat eta balio jakin batzuk erosiko ditu. Inportantea da ideia hori azpimarratzea, eta kontuan hartu beharko genuke erosketak egiterakoan. Berberatik eta jarreretatik ekintzetara pasatu behar dugu, gure mundu eder hau bakarria delako, eta zaindu egin behar dugu.

Aparkalekurako, auzobideetarako eta hilerrirako inbertsioak Mañariko 2024ko aurrekontuetan

Herriko elkarteei eta auzo jaiak antolatzen zuzenduriko diru atalak handitu dituzte

MAÑARIA • JOSEBA DERTEANO

Mañarian 2024rako udal aurrekontuak onartu dituzte. Zenbateko osoa 1.063.970 eurokoa da. Udalkutxatik 656.823 euro jaso dituzte, iaz baino 50.700 gehiago.

Inbertsioen atalean, 15.000 euro ikerketa geologiko bat egiteko erabiliko dituzte, hilerrirako alde bat hondoratzea zerk eragin duen ondorioztatzen. Herrian aparkalekua egiteko asmoari begira, 49.704 euro gorde dituzte. Kopuru horretatik aurrerakoa soberakinetik hartuko lukete. Auzobideak konpontzea da beste inbertsio bat, 40.000 eurogaz. Aldegoiena auzoko bidea konponduko dute eta Al-

debarrietan eta Urkuletan ere lan batzuk egin gura lituzkete. Beste proiektu batzuk soberakinerekin diruagaz egin gura dituzte. Esaterako, kirolgunea berotzeko sistema bat ipiniko dute, bero-berreskuratzaileen bitartez. Horrez gainera, Aldundiak ahalbidetzen badu, neurriak hartu gura dituzte Kiriñoko trafikoa moteltzeko.

Bestalde, diru laguntzak igo dituzte herriari bizia ematen dioten lana sustatzeko. Herriko elkarteei bideraturiko diru atala bigarren urtez jarraian igo dute: iaz 30.000 eurotik 45.000era, eta aurten 50.000 eurora. Herrian kultur elkarte berri bat ere bada-

go: Kafraga elkarte. Orain arte, auzoetako ermitetan jaiak antolatzen zituztenek gehienez 250 euro jasotzen zuten, eta kopuru hori 400era igoko dute. Azkenik, kultura arloari zuzenduriko diru atala 70.000 eurora handituko dute.

Aurrekontuak gobernu taldearen (EH Bildu) aldeko botoekin onartu dituzte. EAJ abstenitu egin da. Aparkalekua egiteko — herri sarrerako parkean egitea da asmoa — kokaleku "egokiagoak" daudela uste dute. Gobernu taldetik adierazi dute ez dutela baztertzeko beste kokapen batzuk ere aztertzea.



Joan zen bariku goizeko udalbatzarrean onartu zituzten Mañariko aurrekontuak.

Tabernako sukaldea hobetzea, Izurtzako inbertsioen artean

Gobernu taldeak (EH Bildu) eta EAJk aho batez onartu dituzte Izurtzako 2024ko aurrekontuak udalbatzarrean

IZURTZA • J.D.

Izurtzan prest daude 2024ra begirako aurrekontuak. Gobernu taldeak (EH Bildu) eta EAJk aho batez onartu dituzte. Oihane Irastorza alkateak nabarmendu du "herri-tarrek eta herritarrentzat" prestatutako aurrekontuak direla. Herri-tarrek bilera bat egin zuten azaro amaieran, eta han jasotako ekarpenak aurrekontuetan barneratzen ahalegindu direla esan du alkateak.

2024ko aurrekontuen zenbateko osoa 619.461 eurokoa da eta 157.000 euro inguru inbertsioetarako erabiliko dituzte. 35.000 eurogaz tabernako sukaldea era-

berrituko dute, zahartuta geratzen den azpiegitura gaur egungo eskakizunetara egokitzeko. Lanak amaitzean, sukaldea egokiago hornituta egongo da; menuak eskaintzeko, esaterako.

Beste inbertsio bat Santo Tomas parkean egingo dute. Hango mahaia eta beste azpiegitura batzuk ere zahartuta gertatu direla uste dute eta eraberritu egingo dituzte. Zeregin horretarako, 35.000 euroko diru atala gorde dute.

2024an udaleko langilearen autoa aldatzeko asmoa ere badute eta 25.000 euroko diru atala sortu dute horretarako.



Taberna abuztu amaieran zabaldu zuten berriro. Irudian, inaugurazio eguna.

MALLABIA • J.D.

URA Uraren Euskal Agentziak Mallabiko Goitondo industrialdeko hondakin-urak Ermuko saneamenduko hodi biltzailera lotzeko obrak lizitatu ditu. Lanek 15 hilabete iraungo dute eta 3,8 milioi euroko inbertsioa eskatuko dute. URAk, Gipuzkoako Ur Partzuergoak, Mallabiko Udalak eta Ermuko Udalak sinatu berri duten hitzarmenaren barruan sartzen dira obra horiek. Mallabitik (Goitondoko industrialdea zein Mallabiko herrigunea) Ermuko herrigunera doazen hondakin urak garraiatzeko kolektoreak egingo dituzte. Kolektore horietan, hondakin urak jaso eta Gipuzkoako Ur Kontsurtzioak kudeatzen duen Eibarko Apraizko araztegi bideratuko dituzte, behar den moduan arazteko.

Lanei eskerrak, hiri-presio "handia" jasaten duen ibaiaren egoera ekologikoa "berreskuratzeke baldintzak sustatu" gura dituzte, URAkoen esanetan.

Mallabiko hondakin urak Ermuko sarera eramango dituzte

URA agentziak obrak lizitatu ditu. Lanek 15 hilabete iraungo dute eta 3,8 milioi euroko inbertsioa eskatuko dute



Kolektoreak egingo dituzte Goitondo industrialdeko eta herriguneko urak Ermura garraiatzeko.

Otxandion, URAk Bolaleku inguruko ibaiertza naturalizatu du

Horma kendu, erribera leundu, bide bat egin eta bertako espezieak birlandatu dituzte, 28.000 euroko inbertsioagaz

OTXANDION • J.D.

URA agentziak Otxandioko Olaeta ibaiaren tarte bateko ertza naturalizatu du, Bolalekuaren inguruko parke batean. Lanen aurretik, 36 metroko luzerako hesi hormigoitu bertikal bat zegoen. Lan hauek egin dituzte bertan: harresiaren goiko

hesi zaharra kendu dute, horma bertikalaren zati bat eraitsi dute, ibaiertza eta ertz naturalak egokitu dituzte, eta ondoren ibaiertza tokiko espezieekin landareztatu dute. Bide bat ere egin da errekarra ailegatzeko. Lanek aste bi iraun dute eta 28.000 euroko inbertsioa izan dute.



Bolalekuaren inguruko ibaiertza lanak amaitu ondoren. URA AGENTZIA

www.gualbiasesores.com

**Bezeroa, bere enpresako
kudeaketa eta bere
gogobetetzea dira
gure helburu nagusia**



- ✓ **Aholkularitza fiskala**
- ✓ **Kontabilitate-aholkularitza**
- ✓ **Merkataritza eta finantza-aholkularitza**
- ✓ **Lan-aholkularitza**
- ✓ **Kontu-auditoretza**
- ✓ **Aholkularitza juridikoa**

Zumalakarregi kalea, 18 1.A - DURANGO

Tel.:946 818 636 - Faxe: 946 203 637 - info@gualbiasesores.com

anboto
kide

Anbotokideen
txokoa

ZOZKETAK

Urtarrilean bueltatuko gara
zozketak gehiagorekin!

ABENDUKO ZOZKETEN IRABAZLEAK

Maluta gabonetako zirku gala: Saioa Fuldain

Olatz eta Iñaki Salvadorren kontzertua: Itziar Arana

Gosaria Xiberun: Estibaliz Katarain

Jai Alai jaialdia: Ireder Angulo

Ping Pang ikuskizuna: Regina Arriola

Afedeko jostailuak:

Amaia Huarte

Anabel Gabikaetxebarria

Begoña Urizar

Iraide Iriondo

Liher Aiartzaguena

Matxalen Manzisidor

Mikel Azkarraga

Nerea Alberdi

Okm:

batzen gaituen
distantzia

Egin zaitez Anbotokide
eta parte hartu gure
zozketetan!



'Hondamendia' obraren azken emanaldia Zaldibarren egingo dute, Eitzagako ezbeharrak gogoan

Antzezlanaren frontoian jokatu dute, abenduaren 29an, 19:00etan. Zaldibar Argituk bertara joatera deitu du

ZALDIBAR • EKAITZ HERRERA

Zaldibarren, abortegia jausi zen udalerrian bertan taularatuko dute tragedia hartan gertaturikoa oinarri duen antzezlanaren antzerki birako azken emanaldia izango da, sinbolismoa eta hunkidura baturiko dituen. Artedrama eta Axut antzerki konpainiek iazko urrian estreinatuta zuten *Hondamendia*

obra, eta ordutik hona geratu bari ibili dira Euskal Herriko zazpi lurraldeetan zein atzerrian obra taularatzen. Zaldibarren egingo dute azken eszenaratzea, Eitzagako abortegia zegoen lekutik gertu-gertu. Emanaldia abenduaren 29an egingo dute, Olazarko frontoian. 19:00etan hasiko da eta debaldekoa izango da.

"Esker ona"

Zaldibar Argituk plataformak antzezlanaren ikustera joatera deitu dituzten herritarrak, "antzezlan zozketaren baten azken emanaldiaz gainera, aldarrikapen uena ere izango delako". Plataformak "langileak, osasuna eta erantzukizuna" aldarrikatuko dituzten beste behin ere, eta gogoratu du Eitzaga auzoko ezbeharrak gertatu zenean zabala izan zela kultur eragileek emaniko babesa. Eibarko hainbat musikaririk sorturiko *Zaborrezko munstroa* abestia eta manifestuei emaniko babesa oroitu dituzte, besteak beste. Zaldibar Argituk "esker ona" erakutsi die Artedrama eta Axut konpainiei. Horretarako modurik onena abenduaren 29an pilotalekua betetzea dela esan dute.



'Hondamendia' antzezlanaren iragartzeko argazkia.

Berrizko Nagusien Etxe berriak eremu zabalago batez zabalduta dituzte atak

Lokal berriak 350 metro koadro dituzte eta espazio bitan dago banatuta. Tabernaz gainera, Eguneko Arreta Zentrorako eremua eta ikastaroak egiteko gunea ipini dute

BERRIZ • ARITZ MALDONADO

Berrizko Nagusien Etxe berriak atak zabalduta dituzte. Lokal berriak 350 metro koadro dituzte eta eremu bitan dago banatuta. Alde batek, taberna zerbitzua emango duen gunea dago, eta, bestetik, erabilera anitzeko gunea. Azken honetan, ikastaroak, tailerrak eta bilerak egiteko gelak ipini dituzte, eta eremu hau etorkizunean indarrean sartuko den Eguneko Arreta Zentrorako ere izango da erabilgarria. Berrizko Udalak Mankomunitateagaz batera landuko du egitasmo hau. Nagusien egoitza berritzeko lanek 540.000 euroko inbertsioa izan dute.



Berrizko Nagusien Etxearen inaugurazioa.

Durungaldeko mugimendu feministak "indartuta eta saretuta" irten du greba feminista orokorretik

"Zaintza sistema publikoaren aldeko borroka honen aitzakiarean, eskualdeko feministok inoiz baino batuago gaude dena antolatzen", adierazi dute ohar batean. "Harro" agertu dira eginiko lanagaz, eta "harro" Durungaldeaz

DURANGALDEA • EKAITZ HERRERA

Euskal Herrian greba feminista orokorra egin zenetik aste batzuetara, Durungaldeko mugimendu feministak mobilizazio hark emandakoaren balantzea egin du. Eskualdeko mugimendu feministak azaldu du "indartu eta saretu" egin dela egun hari eskerrak. "Zaintza sistema publikoaren aldeko borroka honen aitzakiarean, eskualdeko feministok inoiz baino batuago gaude dena antolatzen. Izan ere, urtariletik egon gara bileretan bazen. Horren emaitzetariko bat greba egunean errepideak elkarregaz hartu izana izan zen. Elkarlanaren emaitza da ere elkar elikaturiko ideia eta energiaz pribatizazioaren kontra mobilizazioetara deitu izana", azaldu dute ohar batean.

Greba eguna "izugarria" izan zela gaineratu dute, "ilusioz gainezka eta eztarriak urratuta" amaitu zutela. Herririk herri sorturiko bilera, greba komite, kafe tertulia, lantalde eta kartel itsasketek merezi izan zutela baloratu dute. "Eginiko bo-

rroak merezi" izan duela iritzita, "harro" daude eginiko lanagaz eta Durungaldeaz.

Aurrean zabaltzen den zerumugaren aurrean "pozik" daudela gaineratu dute, eta gogoratu ur-

tarrilaren 28an Euskal Herriko asanblada feminista egingo dutela Gasteizen. Bertan pentsiodunak, gazteak, sindikalistak, migratuak eta nekazariak batuko dira, aurrera begirako erronken inguruan

berba egiteko. Bileran parte hartzeko gonbitea egin diete Durungaldeko herritarrei.

Aurreratu dutenez, "martxan" jarraituko dute zaintza eskubide kolektiboaren alde ekiteko.



Greba eguneko mobilizaziorik jendetsuena iluntzean egin zuten, Durangon. Andra Mariko elizpea txiki geratu zen manifestazio amaieran.

Trumoitte elkarteak bazkideen parte hartzea sustatzeko kanpaina hasi du

GARAI • EKAITZ HERRERA

Garaiko Trumoitte elkarteak kanpaina bat hasi du elkarteak bazkideen parte hartze aktiboa sustatzeko asmoz. "Jende berria gura dugu, kultur proposamen berriak, eta denen parte hartzea areagotzea hemendik aurrera", azaldu dute elkarteak. Izurria baino lehenago bazkideen zerrenda handitu zuten, baina orain bazkideen euren inplikazioa handitu gura dute, "bai bileretan parte hartuta, bai ekintzen antolaketan eraginda". Besteak beste, belaunaldien arteko erreleboa ziurtatu gura dute: "15etik 25 urtera artekoengan ipini gura dugu indarra. Gazteak erakarri gura ditugu, haiei entzun, haien intereseko ekintzak antolatzeko".

Abenduaren 31ko goizean, Arakaldorako igoera egingo dute. Amaieran, plazan, papearak eta boligrafoak banatuko dituzte, herritarrak elkarera batu eta haien inplikazioa biltzeko. Trumoitteek argitu du zabal-zabalik dituela ateak garaitarrentzat.

Alkarregaz Eraikiz saioak lan prestakuntzaren arloko 30 lagun eta elkarte batu ditu

Adituek beharizanik handiena duten lan sektoreak idenfitikatu dituzte, gero horiei enplegarritasuna bilatzeko

DURANGALDEA • EKAITZ HERRERA

Mankomunitateak Alkarregaz Eraikiz programaren jardunaldi berri bat egin du Zornotzako Udalagaz, Ermuko Udalagaz eta Aldundiagaz elkarlanean. Bertan, gazteen enplegarritasunari buruzko saioa gauzatu dute, 2021etik honako diagnostikoa aurkeztuta. Durungaldeari dagokionez, adituek honako sektore hauetan ikusi dute prestakuntzarako beharizana: merkata-

ritzan, ostalaritzan, zainketa pertsonaletan, eraikuntzan, iturgintzan, elektrizitatean, industria lanbideetan, mantentze-lanetan eta gaitasun digitalean. Idoia Otaduy Mankomunitateko presidentea garrantzitsutzat jo du gazteei begira aukera berriak eskaintzea. Horri guzti horri heltzeko, komunikazio bide eraginkor bat sortu gura dute enpresekin eta prestakuntza ikastetxeekin.



Ikastetxeetako ordezkariak, enpresetakoak eta ordezkari politikoak jardunaldian.

Iurretako Elkartasun Azokan baturiko 2.000 euroak JAEDi emango dizkiote

IURRETA • AITZIBER BASAURI

Iurretako Elkartasun Azokaren 9. edizioan 2.000 euro batu dituzte. Gabonen atarian egiten den merkatu hau geroago eta errotuago dago eta Anderebide eta udala pozik daude izan duen erantzunagaz. Hala esan du Zorione Fundazuri kultur zinegotziak: "Oso arrakastatsua izan da eta pozik gaude Anderebidekin eginiko lanari eskerrak solidaritatea bultzatu delako herrian. Premia duten askok Gabonetan jostailuak eta opari bereziak izango dituzte. Gainera, etxeak atontzeko hainbat gauza egon dira. Eta kontzientzian eragiteko ekintza aproposa ere bada". Baturiko dirua JAEDi emango diote.

Aurten saltzeko objektu gutxiago egon den arren, lehenengoz 100 euro ordaindu dira horietariko bategatik, Anderebidekoek esan dutenez. Saldu ez direnak El Árbol elkarteari eraman dizkiote. Eta zenbait gauza Senegalera bidaliko dituzte, La Otra Mirada elkartearen bitartez.



Durangoko Txu-txu tren.

Durangoko izotz pistarako sarrerak opari Dendak Bai elkartearen eskutik

Dendak Bai elkarteak Txu-txu tren ipini du aurten ere Gabonetarako; Durangoko eta lurretako kaleetatik ibiliko da

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Dendak Baik tokiko merkataritza aukeratzeko duten herritarrak sarritu ditu izotz pistarako sarrerak debalde emanda. Merkataritza elkarteak gaur, abenduaren 22an eta 29an oparitu ditu sarrerak, edo izakinak amaitu arte, Askatasun Etorbidean duen bulegoan. Txartela opari eskuratu gura dutenek honako betebeharrak hiru bete

beharko dute: abenduaren 29a bitartean erosketaren bat Dendak Bairen parte diren dendetan egin, eta hango erosketatik aurkeztea.

Bestalde, Dendak Baik Txu-txu tren ipini du aurten ere. Trenak Durangoko eta lurretako kaleak zeharkatu ditu abenduaren 26ko eta 27ko goizetan (11:30 - 13:30) eta arratsaldeetan (16:00 - 20:00).

Lauhortza

Jesica Ruiz
Perez
PSE-EE



Bideragarrtasuna garrantzitsua da

Azkenaldian askotan entzun dugu *gizarte-etxe* hitza, baina zer esan nahi du horrek? Hitzak berak esanahi polita du. Izan ere, horrelako leku batean hainbat espazio sor daitezke: bilera-gelak, kiroldegi bat edo liburutegi bat, besteak beste.

Durangok hedadura txikia du eta gainera laua da. Egia da badaudela auzo batzuk erdigunetik urrun daudenak, Otamotzena adibidez. Bertan *gizarte-etxea* egin zen, eta zabaldu bezain laster entzun genuen lehenengo gauza txikia zela izan zen. Gero San Faustokoa etorri zen, Kapitanena, guztira 178m2 erabilgarrirako milioi bat eurotik gorako proiektuarekin. Udalean zegoen egoera ekonomikoa zela eta, gelditu eta birpentsatzea erabaki genuen, zerbait eskuragarriagoa, handiagoa eta kostu txikiagoa egiten saiatzeko. Bestela, hasierako planera itzuliko gara, baina politikaren erantzukizuna bideragarrtasuna kontuan hartzea ere bada.

Eta gero Muruetatorre dago. Durangar gehienek ez dakite non dagoen euskaltegia, eta euskara bultzatu nahi dugu? Zergaitik ez dugu eramaten Euskaltegia Muruetatorrerara? Eta horri gehitzen badiogu Musika Eskolako teilatua berri behar dugula, milioi bat euro baino gehiagoko obra dela eta gutxienez 8 hilabeteko iraupena izango duela, eta 700 ikasle lekualdatu beharko ditugula urtebetez, non dago arazoa?

Kontuan izan behar da erai-kin berri bakoitzak, lonja bakoitzak, espazio bakoitzak, gastu finko batzuk dituela: argia, ura, aseguruak..., eta hori guztia deon artean ordaintzen dugula. Beraz, bideragarrtasun ekonomiko garrantzitsua da.

Durungaldea asteen

Maristak Durango ikastetxeak ideia teknologiko berritzaileen lehiaketa hasi du

DURANGO | Maristak Durango ikastetxeak ideia teknologiko berritzaileen lehiaketa ipini du martxan. Bertan parte hartu gura dutenek abenduaren 23ra arteko epea dute izena emateko. Adinez nagusi izan behar da eta proiektuak banaka nahiz taldeka aurkeztu daitezke. Irabazleak 2.000 euro jasoko ditu eta laguntza izango du bere proiektua aurrera eramateko.

Durungaldeko Mankomunitateak 'Familientzako Eskolak' ekimena aurkeztu du

DURANGALDEA | Durungaldeko Mankomunitateak *Familientzako Eskolak* ekimena antolatu du datorren urterako. Ekimen honen bitartez, hainbat gai jorratuko da profesionalen eskutik, era dinamiko, parte hartzaile eta praktikoa batean. Izen ematea abenduaren 29ra arte egin ahal izango da.

Argiñola komunitateak energia bulegoa zabaldu du, elorriarrei aurrezten laguntzeko

ELORRIO | Joan zen maiatzean, Elorrioko Energia Berriztagarrien Komunitatea aurkeztu zuten jendaurrean, eta Argiñolak beste pauso bat eman du orain. Aratz bitxi denda zaharraren lokalean bulegoa zabalduko dute, hilaren 26an. Printzipioz, martitzen eta eguenetan egongo da zabalik, 16:00etatik 19:00etara. Txanda hartzea beharrezkoa izango da.



Jabier Sagastizabal durangarra hil da, 81 urte gaz

DURANGO | Durangoko ekosistema kulturalak eragile nekaezin bat galdu zuen joan zen asteen: Jabier Sagastizabal Miota. Orain hamar-kada bat, hainbat durangarrek Vicente Zabala elkarte sortu zuten, abade eta irakasle jesuita izan zenaren lana goraiatu eta zabaltzeko. Elkarte horren bultzatzaile nagusietariko bat izan zen Sagastizabal bera.

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak: Bixente Kapanaga 9, - IURRETA • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia **DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO** Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOToren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).



Smurfit Kappa
Nervi3n

+55 urte
EUSKADIKO
PINUDIAK
ZAIINTZEN





Gabonak 2023

Gabonak 2023

ABADIÑO

Abenduak 22, barikua

17:00 - 19:00 Haurrentzako Gabonetako tailerrak Traña-Matienako frontoian.

Abenduak 23, zapatua

09:30 - 14:00 Gabonetako Xake Txapelketa Traña-Matienako frontoian.
20:00 - 23:00 DJ Kool Traña plazan.

Abenduak 24, domeka

09:00 Gabonetako Astxikira igoera Txanporta plazan.
11:30 Gabonetako lasterketa Muntzaratzen.
17:00 Olentzero eta Mari Domingiren kalejira Traña-Matiena, Muntzaratz, Txanporta.

Abenduak 26, martitzena

17:30 'Emozio festa' haur ikuskizuna. Ene Kantak. Errota Kultur Etxea.

Abenduak 27, 28, 29

11:30-13:30 / 16:00-20:00 Umeen Gabonetako jolaslekua. 0 urtetik 9 urtera Probalekuan. 10 urtetik aurrera Traña-Matienako frontoian.

Abenduak 28, eguena

19:30 Gabonetako kontzertua San Trokaz elizan.

Abenduak 29, barikua

19:00 Gabonetako kontzertua. Herri Maite Akordeoi taldea Errota Kultur Etxean.

Urtarrilak 30, zapatua

09:30 Euskadiko ziklo-kros txapelketa Muntzaratzen.

Urtarrilak 5, barikua

18:00 - 20:00 Erregeen Kabalkada Muntzaratz, Zelaieta, Traña-Matiena.

Urtarrilak 6, zapatua

22:00 Erreginen gaua. Yougurinha Borova eta Aurori Badiola Isiotu elkartean.

Urtarrilak 7, domeka

19:00 Bakarrizketa: Julen Axpe Errota Kultur Etxean.

ATXONDO

Abenduak 22, barikua

Olentzero kantari Apatan.

Abenduak 24, domeka

Baserririk baserri Olentzero Kantari Axpen eta Arrazolan.

Abenduak 26, martitzena

Goizean, Jokai egurrezko jolasak Apatako plazan.

Abenduak 28, eguena

18:00 Lur Korta ipuin kontalaria Liburutegian.

BERRIZ

Abenduak 24, domeka

9:30 Olakueta plazan, auzoetara joateko.
17:30 Olentzero eta Mari Domingigaz irteera Berrizko udaletxetik probalekura. Animatu eta baserritar jantzita etorri.

Abenduak 27, eguaztena

17:00 'La Patrulla canina: la superpelícula' Berrizko Kultur Etxean.

Abenduak 28, eguena

18:00 'Iratxoak eta basoko sorginkeria'. Gookapi. Familia ikuskizuna Berrizko Kultur Etxean.

Abenduak 29, barikua

19:00 Olatz Salvador & Iñaki Salvador Familia artean Berrizko Kultur Etxean.

Urtarrilak 30, zapatua

17:00 'Teddy, la magia de la Navidad'. Berrizko Kultur Etxean.

Urtarrilak 3, eguena

12:00-13:30/16:00-19:00 Gabonetako haur parkea Olakueta frontoian.

Urtarrilak 5, barikua

17:30 Erregeen kabalkada. Komentutik Olakueta plazaraino. Txokolatea.

DURANGO

Abenduak 22-23, barikua eta zapatua

11:00 - 21:00 Eixu artisau elkartearen azoka Andra Mariko elizpean.

Abenduak 22 - urtarrilak 7

Izotz pista Landako Gunean.

Abenduak 23, zapatua

16:30 Jolas Eguna Tabirako parkean. Euria bada, San Antonio ikastetxean.
20:00 Durangoko Orfeoia, Doinuzahar abesbatza eta lurretako abesbatza Andra Mariko elizan.

Abenduak 24, domeka

18:30 Olentzeroren eta Mari Domingiren kalejira Frai Juan Zumarraga institututik hasita. Ibilbidea: Institutua - Ermodo - Zumalakarregi - Ezkurdiko kioskoa. Euria bada, Landako Gunean.

Abenduak 26, martitzena

11:30 Jolas Eguna San Fauston Euria bada, San Faustoko frontoian.
16:00 Pirritx, Porrotx eta Marimotots Landako Gunean.*
19:00 Pirritx, Porrotx eta Marimotots Landako Gunean.*
**'Ez gara jaitsiko!' ikuskizuna. Sarrerak abenduaren 15etik aurrera salgai Kutxabanken eta Arte eta Historia Museoa (5 euro).*

Abenduak 26 eta 27, martitzena eta eguaztena

11:30 - 13:30 eta 16:00 - 20:00 Txu Txu Trena Elkartegaren aurrealdean, Dendak Bai elkartearen eskutik.

Abenduak 27, eguaztena

11:30 Jolas Eguna Murueta Torre auzoan. (Euria bada, Landako Eskolan)

Abenduak 28, 29 eta 30

11:00 - 14:00 eta 16:00 - 20:00 Umeen Gabonetako Parkea Landako Gunean (Umeak doan. Helduak euro 1).

Abenduak 29, barikua

18:00 Dantzaro: Lorratz taldea. Andra Mariko elizpean.

Abenduak 30, zapatua

20:00 Arandoño Kultur Elkartearen Gabonetako kontzertua, Mikel Ansola organistagaz eta Akelarre abesbatzagaz. Zuzendaria: Xabier M. Aretxabaleta. Andra Mariko basilikan.

Abenduak 31, domeka

18:00 Arandoño Kultur Elkartearen Gabon zaharreko kontzertua Benantzi Bilbaogaz, Andra Mariko basilikan.

Urtarrilak 2, 3 eta 4

11:00 - 14:00 eta 16:00 - 20:00 Umeen Gabonetako Parkea Landako Gunean (Umeak doan. Helduak euro 1).

Urtarrilak 5, barikua

18:45 Errege Magoen kabalkada Fray Juan Zumarraga institututik hasita. (Ibilbidea: Institutua - Ezkurdi - udal plaza - Andra Maria - San Fausto)

Gabonak 2023

Urtarrilak 6, zapatua

18:00 JAEDen ongintzako zozketa Andra Mariko elizpean.

Urtarrilak 13, zapatua

20:00 Bogoroditsie abesbatzaren kontzertua San Franzisko elizan.

Abenduak 22, barikua

20:00 'Pasión de Falla': Jose Luis Nietoren piano kontzertua Arriolan.

Abenduak 23, zapatua

22:00 Bertso afaria Gaztetxean.

Abenduak 24, domeka

10:30-15:00 V. Gabonetako artisau eta sortzaileen azoka Herriko plazan.

18:00 Olentzero eta Mari Domingi Elizpean.

00:00 Gaztetxea Zabalik.

Abenduak 26-28

11:30-13:30 / 16:30-19:30 Haur Parkeak.

Abenduak 27, eguaztena.

18:00 Futbolin txapelketa.

Abenduak 29, barikua

18:00 'Back 2 Classics' antzerki zirkua. Planeta Trampoli konpainia Arriolan.

Abenduak 31, domeka

01:00 Etxeko DJak Gaztetxean.

Urtarrilak 2-3-4

11:30-13:30 / 16:30-19:30 Haur Parkeak.

Urtarrilak 5, barikua

Errege Magoak elizpean.

GARAI

Abenduaren 22tik 29ra

Gabonetako marrazki lehiaketa. Udaletxeko arkupean kutxa bat egongo da marrazkiak bertan sartzeko.

Abenduak 24, domeka

10:00 Olentzeroren eta Mari Domingiren kalejira baserri-rik baserri. Amaieran, herri bazkaria Otea Loran elkartearen.

17:00 Olentzero eta Mari Domingi herriko plazan.

Abenduak 29, barikua

18:00 Umeentzako pelikula eta txokolatada Kultur Etxean.

Abenduak 31, domeka

10:00 Arakaldora irteera herriko plazatik hasita. Bueltan, kopaua eta marrazki lehiaketako sari banaketa.

IURRETA

Abenduak 22, barikua

Olentzerori gutunak Ibarretxe kultur etxean.

10:15 / 10:45 'Hiru lumak' txotxongilo ikuskizuna (Rosa Maria Martinez). Hurrenez hurren, 2-3 urteko umeentzako eta 4-5 urteko umeentzako saioa (Ibarretxe kultur etxea). Eskolekin hitzartuta.

11:00 'Magia parrastan' (Imanol Ituiño). 1., 2., 3. eta 4. mailako ikasleei zuzenduta Ibarretxe kultur etxean. Eskolekin hitzartutako saioa.

17:00 / 17:45 'Ipuin ibiltaria' (Ridouane Chakoich Laman). Hurrenez hurren, 3-5 urteko umeentzako eta 6 urtetik gorakoentzako saioa Ibarretxe kultur etxean.

19:00 'Historias de arena y sal' (Ridouane Chakoich Laman) helduentzako ipuin kontalaria, Ibarretxe kultur etxean.

Abenduak 23, zapatua

10:00 Abendu koplak, etxerik etxe. Irteera Aita San Migel plazan.

Abenduak 24, domeka

12:00 Olentzero eta Mari Domingiri harrera Aita San Migel plazan. Ondoren, **kalejira trikitilariak alaituta herrian zehar** euria bada Askondon. Baserritar jantzita joatera gonbidatu dituzte herritarrek.

Abenduak 27, eguaztena

11:30 Haurrentzako ipuin kontalaria: 'Animalien istorioak' (Maidar Alcelay), 3-5 urteko umeentzat Ibarretxe kultur etxean.

12:00 Haurrentzako ipuin kontalaria: 'Bazen behin herri-txo batean...' (Maidar Alcelay), 6 urtetik gorako umeentzat Ibarretxe kultur etxean.

Abenduak 26-27

11:30-13:30 / 16:00-20:00 Txu-txu tren, Korreoseko geltokian (doan).

Abenduak 27-30

17:00-20:00 Gabonetako Haur Parkea Kepa Arroitauregi frontoian.

Urtarrilak 1, astelehena

09:30 Urte Berri eguneko igoera Gallandara Zaldai Mendi Taldea, Iurretako plazan, taldean igotzeko.

11:00 Tontorrean familia argazkia egingo da.

Urtarrilak 2-3-4

Gabonetako tailerrak: Txiki Chef (Gabonetako errezeta bereziak). Plazak mugatuak dira eta aurretiaz izena eman behar da.

Urtarrilak 5, barikua

17:30 Errege Magoen kabalkada Askondon. Errege Magoei harrera egingo zaie eta umeek eurekin egoteko aukera izango dute. Bien bitartean, **txokolatea eta elkartasun opila** banatuko da.

MALLABIA

Abenduak 22, barikua

17:30 Petanka txapelketa, herriko frontoian. 12 urtetik gorakoentzat.

Abenduak 24, domeka

10:45 Topagunea petrilean Gabonetako kantak abesteko.

11:00 Kalerik kale kantu kantari trikitilari eta panderojole gazteekin. Ondoren, **udaletxe atzeko zuhaitza apaindu.** Mallabiko musikariek giroa alaituko dute.

12:30 Olentzero eta Mari Domingiri ongi etorria udaletxe ondoan. Gero, plazara Olentzero eta Mari Domingigaz, bertan gutunak jasotzeko.

18:30 Olentzeroren eta Mari Domingiren laguntzaileek opariak banatuko dituzte, herriko frontoian.

Gogoratu:

Baserritar arropa jantzita etortzea

Zuhaitza apaintzeko apaingarriak ekartzea

Olentzerori eta Mari Domingiri emateko gutuna ekartzea

Antolatzaileak: Guraso Elkarte, Zaparrada Elkarte, Mallabiko Gazte Asanblada, Musikabia eta Mallabiko Udala.

Abenduak 28, eguaztena

19:00 Skimetrajea: 2023 edizioako film labur sarituen hautaketa. Kontzejuzarrean.

Abenduak 29, barikua

10:30 Baserririk baserri gabon eskean. Ibilbidea: Gere, Arandoño eta Berano.

15:00 Tenis partiduak, eskolako frontoian.

Urtarrilak 2-3

11:30-13:30 eta 16:30-19:30 Gabonetako Haur Parkea, herriko frontoian.

Urtarrilak 7, domeka

16:00 Domino txapelketa. Kontzejuzarrean. 12 urtetik beherakoentzat.

Gabonak 2023

MAÑARIA

Abenduak 24, domeka

Arratsaldean: Olentzero eta Mari Domingiren etorrera.

Abenduaren 26tik 29ra

Negulekuak, Andra Mari elkarteak antolatuta.

Urtarrilak 5, barikua

Erregeen etorrera

OTXANDIO

Abenduak 22, barikua

20:00 Otxandioko Bandaren Gabonetako kontzertua (Elizan)

20:00 Gaztetxoekun zunba erakustaldia (Haurreskolako gimnasioan)

Abenduak 24, domeka

19:00 Olentzeroren etorrera

Abenduak 26, martitzena

18:30 'Etzandreak', antzerki ikuskizuna (Mainondoko gimnasioan)

Abenduak 29, barikua

18:30 'Aire', Maurizia Aldeiturriagaren bizitzaren dokumentala. Aurkezlea eta filmeko partaidea, Garazi Pacheco

Abenduak 31, domeka

9:00 Urteko azken mendi irteera, Arangixo. Autobus geltokian.

20:00 Presoen eskubideen aldeko elkarretaratzea Kontseilupean.

Urtarrilak 3, eguaztena

17:00 Zirkoteke, haurrentzako antzerkia. (Mainondoko gimnasioan).

ZALDIBAR

Abenduak 22, barikua

17:00 Haur antzerkia: 'Olentzerori zer gertatzen zaio?' Olazar pilotalekuan.

17:00 Haur antzerkia: 'Olentzerori zer gertatzen zaio?' Olazar pilotalekuan.

Abenduak 24, domeka: **Badatoz Mari Domingi eta Olentzero herri ekimena.**

12:00 harrera. Olazar kalean.

12:30 Ongi etorri jaialditxo. San Martin plazan.

Abenduak 26, martitzena. San Esteban eguna

18:00 Taloa, txorizoa, urdaia eta gaztaina erreak. Eskolako pilotalekuan.

Abenduak 27 eta 28, eguaztena eta eguena

12:00-14:00/17:00-20:00 Gabonetako Haur Parkea. Eskolako kiroldegian.

Abenduak 29, barikua

19:00 'Hondamendia' antzerkia. Olazar pilotalekuan.

Abenduak 31, domeka

16:00 III. Emakumeen Olazar Pilota Txapelketa. Finala. Jarraian, XXXVI. Olazar txapelketako finalak.

17:00 IX. San Silvestre lasterketa. Irteera udaletxeko plazatik.

Urtarrilak 1, astelehena

10:30 Santamarinazarrera igoera. Ondoren, talde argazkia.

Urtarrilak 5, barikua

18:00 Erregeen desfilea. Agarre parketik.

ZORNOTZA

Abenduak 22, barikua

20:00 Gabonetako kontzertua Zubiaur Musika Eskolako kideen eskutik. (Sarrera: 3 euro).

17:00 - 21:00 lhes gela ibiltaria Zelaieta parkean (izen ematea euskarazbarrabarra.eus atarian)

Abenduak 23, zapatua

10:00 - 14:00 eta 17:00 - 21:00 lhes gela ibiltaria Zelaieta parkean (izen ematea euskarazbarrabarra.eus atarian)

12:00 Mesias Sarritan herriko koraleen eskutik, herritik zehar.

13:30 Topaketa Kalbarioan (Antolatzailea: Herriko abesbatzak).

20:00 Atzoko eta gaurko klasikoak Zornotzako Musika Bandaren eskutik. (Sarrera: 3 euro).

20:00 **Gabonetako gauero berezia.**

Abenduak 24, domeka

9:00 Belatxikietara igoera Zelaieta parketik hasita (Antolatzailea: Extrem Zornotza).

18:00 Olentzero eta Mari Domingiren etorrera herriko plazan, **Udazken txistulari taldeak, Triki Piu Pandek eta Galtzagorriek lagunduta** (Antolatzailea: Udabarri dantza taldea).

Abenduaren 26tik 30era

11:00 - 14:00 eta 16:30 - 21:00 Gabonetako Haur Parkea Zelaietako frontoian.

Abenduaren 26tik 29ra eta urtarrilaren 2tik 4ra

11:00 - 14:00 eta 17:00 - 21:00 Txu Txu Trena Gudari kaleko autobus geltokian.

Abenduaren 26tik 30era eta urtarrilaren 2tik 5era

17:00 - 21:30 Guero Gabonetan, Zelaietako kontzertu gelan.

Abenduak 26, martitzena

17:30 'La navidad en sus manos' antzezlana Zornotza Aretoan (Sarrera: 4,5 / 5,5 euro)

Abenduak 28, eguena

17:30 'Muna' antzezlana Ganso & Ciaren eskutik Zornotza Aretoan (Sarrera: 5 euro).

Abenduak 29, barikua

17:30 'Ping Pang' antzezlana Zornotza Aretoan, Xabi Larraeren eskutik (Sarrera: 5 euro).

Abenduak 31, domeka

09:00 Belatxikietara igoera Zelaieta parketik hasita (Antolatzailea: Zornotza Mendi Taldea)

16:30 San Silbestre lasterketa Zelaieta parkean (Zornotzako Triatloi Kluba)..

Urtarrilaren 2tik 5era

11:30 - 13:30 Tranpantoko Fake Food gaztetxokoa.

17:00 - 20:00 Eskulan tailerrak Zelaietako ludotekan.

Urtarrilak 3, eguaztena

17:30 'Bo Jauna' antzezlana Zornotza Aretoan, Marie de Jongh konpainiaren eskutik (Sarrera: 5 euro).

Urtarrilak 4, eguena

9:00 12 orduko maratona Zelaietako frontoian. (Antolatzailea: Lagun Onak).

17:30 'Kutxartean' antzezlana Paraiso konpainiaren eskutik, Zornotza Aretoan. (Sarrera: 5 euro)

Urtarrilak 5, barikua

18:00 Erregeen kabalkada Zubiaur musika eskolako hip hop ikasleekin eta Triki Piu Pand taldeagaz. Gudari - Herriko plaza.



22:00 Pilota Pro Fest jaialdia Zelaietako frontoian.

BURUARI KLIK!





TXIKITIK HANDIRA

Ordenatu arrain hauek txikitik handira beheko irudian marraztuta dauden arabera.



TOPATU ITZAZU










Alboko irudian
bederatzi objektu
hauek topatzeko
gai zara?



SEKUENTZIA

Jarraitu sekuentziari eta galdera ikurra dagoen laukian marraztu dagokion figura.

				?		
						?
		?				
	?					
?						





SUDOKUA

Kokatu beheko irudiak lauki zurietan.



ESAERA ZAHARRA



Bete lauki bakoitza dagokion letragaz, behean daukazu alfabetoari jarraituta.





ITZALAK

Behean dauden itzal guztietatik zein dagokio alboko irudiari?





Ostalaritza gida



**Profesionalik
onenak zure
zerbitzura!**



Durango



BASA - EROATEKO JANARIA

Untzillatx, 9 - DURANGO

Tel.: 747 421 104

Eroateko platerak, kalitatezko eta gertuko produktuez prestatuak. Gabonetako karta berezia. Etorri probatzera!



Iurreta



GAUARGI

Dantzari 4 behea, IURRETA

Tel.: 944 356 674

Eramateko tortilla bereziak. Barikuetan mollete eta errazioak. Domeketan rabak eta askotariko errazioak.



Abadiño



ABARKETERUENA

Iturritxo, 6 - Txanporta plaza, ABADIÑO

Tel.: 944 657 790

Eguneko menuak eta asteburuetako menu bereziak. Goizetik pintxoak. Giro oso ona.



Zornotza



XIBERU

Zezenia Gallartzagoitia, 9

Tel.: 946 181 758

Gosari bereziak egunero, pintxopotea ostegunero eta afariak astebururo. Giro alaia eta atsegina. Ongi etorri Xiberura.



Durango



IBAIZABAL

Ibaizabal taldea, 2B - DURANGO


Tel.: 946 550 185

Plater konbinatuak, hanbursesak, ogitartekoak eta kazolatxoak.



“Nire ustez, aurrera begira liburuak bizirik iraungo du, baina beste formatu batzuekin elkarbizitzan”

Xabier Olaso otxandiarrak asmakizunak ardatz dituen liburu berria aurkeztu du oraintsu; 'Mihi-puntaren puntan' deitzen da eta Elkarregaz kaleratu du



Xabier Olaso Bengoa
Idazlea
OTXANDIO | 1964

Xabier Olaso.

LITERATURA • ARITZ MALDONADO

Egutegi baten egituran, Xabier Olaso otxandiarrak 365 igarkizun jaso ditu *Mihi-puntaren puntan* liburu berrian, egun bakoitzeko bat, hilabete eta urtaroretan banatuta. Beraz, urte zaharra

errepasatu eta berriari ongi etorria emateko egun hauetan, jolasteko eta ikasteko liburuak dakar Olasok.

Igarkizunak dira liburu berriaren ardatza. Zergaitik?

Bai, halaxe da, igarkizunek liburuak alderik alde betetzen dute. Zaletasun handia daukat igarkizunak egiteko, aspalditik, eta sormen ariketa guztiz aberasgarria eta dibertigarria iruditzen zait. Bene-

tan gozaten dut irakurlea zelan nahaspilatuko dudan pentsatzen, eta erantzun zuzena ezkututzen. Mezuak itxuraldatzen eta esaldiak mozorrotzen ibiltzea ariketa eder-ederra da niretzat. Liburu hau nire hirugarren igarkizun liburu da (aurrekoak *Auskalo!* eta *Nik papaita, zuk papaita*), eta dagoeneko 1.200 igarkizun inguru ditut argitara emanda.

Zelan dago antolatuta liburuak?

Egutegi baten egitura du; hamabi hilabeteak ageri dira eta urteko 365 egunak. Egun bakoitzerako igarkizun bat sortu dut. Bestalde, liburuaren amaieran, familian edo eskolan igarkizunekin jolasteko proposamen bi ageri dira, dinamika erraz bi, ondo pasatzeko modukoak.

Ikasi daiteke jolasaren bitartez?

Jakina, zalantzarik barik; eta ikasi bakarrik ez, jolasaren bitartez haurrek besteekiko loturak garatu eta hartu-emanak sendotzen dituzte. Jolasaren bitartez partekatzen ikasiko dute, arauak barneratzen dituzte eta sortzen diren arazoak konpontzen dituzte, besteak beste. Jolasa ikasteko berezko modu bat da eta igarkizunen jolasa ondo baino hobeto bateratzen da ideia horregaz.

Zelan Higinia Gray ilustratzaileagaz lanean?

Oso ondo, egia esan. Poz-pozik geratu naiz berak eginiko lanagaz. Berari ere gustatu zitzaien liburu-ko igarkizunen estiloa eta hori ere garrantzitsua izan zen, lehenengo momentutik liburuagaz ederto konektatu zuelako. Lan handia egin du; igarkizunak eta ilustrazioak elkarren osagarri egokiak dira eta

liburuak ederto apainduta geratu da berak eginiko ilustrazio txikiekin. 200 baino gehiago egin ditu. Denak irudikatzaileak eta oso irudimentsuak direla uste dut.

Pantailak nagusi diren garaioan, uste duzu liburuak badutela etorkizunik? Eta umeen kasuan, zein izango da gako liburuetara erakartzeko?

Azken hamarkadetan jaio diren pertsonak jatorriz digitalak dira eta pantailari lotuta hazi eta hezi dira, horixe dute lehenengo erreferentzia, eta paperak eta liburuak arrotzak zaizkie. Liburuaren salmentak azken bost urteotan gora egin duela ere entzun dut, pandemian jende asko irakurketari lotu zitzaioela, eta hartara liburuaren igoera nabarmena izan zela. Paradoxikoa da.

Nire ustez, aurrera begira liburuak bizirik iraungo du, baina beste formatu batzuekin batera elkarbizitzan. Argialetxeek irakurtzeko modu berriak asmatuko dituzte, seguruenik. Paperezko liburuak liburu digitalekin eta asmatuko diren bestelako formatuekin elkarbizitzan ikusten dit. Horixe izango da gako umeak liburuetara erakartzeko. Edozelan ere, erronka gatxa izango da.

Baduzu beste proiekturik buruan? Zer zabilta idazten orain?

Aspaldian helduentzat idatzita nuen mikro ipuin bilduma bat berreskuratu dut nire mesanotxetik, eta aspaldi honetan horri lotuta nago, testuak berridazten, zuzentzen, biribiltzen... itzulpenen bat edo beste ere tartekatuta zait. Edozelan ere, literaturari lotuta nago, pasioz eta gogotsu.

San Agustinek 'Maluta' zirku ikuskizunaren lau emanaldigaz borobilduko du bere 25. urteurrena

San Agustin kulturguneak 2024ko maiatzera arteko egitaraua aurkeztu du eta hamasei ikuskizun egongo dira Durangoko gunean; San Agustinek 25 urte bete ditu aurten

ANTZERKIA • ARITZ MALDONADO

San Agustin kulturgunearen 25. urteurren berezia borobiltzeko, *Maluta* zirku ikuskizunaren lau emanaldi egingo dituzte abenduaren 27tik 30era. Lotta & Stina akrobata finlandiarrek, Paprika portugaldarrak, No Sin Tri konpainia madrildarrak eta Ni Mú Euskal Herriko konpainiak parte hartuko dute. Ohikoa den moduan, Ganso & Cia konpainiako kideek gidatuko dituzte emanaldiak. *Maluta*k bederatzigarren edizioa du San Agustin

kulturgunean. Emanaldi guztiak 19:00etan izango dira. Arduradunak pozik daude 25. urteurreneko ekitaldiek izan duten harreragaz. "Urte osoan zehar ospatu dugu urteurrena, eta jendeak oso ondo erantzun dio programazio osoari. Beste denboraldi batzuetan baino jende gehiago bertaratu da eta ildo horri jarraitzea espero dugu", azaldu du Arantza Arrazola San Agustineko arduradunak.

2024ko maiatzera bitartean, hamasei dantza eta antzerki ikus-

kizun izango dira San Agustinen. Besteak beste, Yllana, Khea Ziater, Metrokoadroka kolektiboa, eta La Zaranda konpainien lanak ikusi ahal izango dira bertan; Durangoko Maialen Marin aktorearen debuteko lana ere ikusi ahal da.

Beste urte batez, bazkide kanpaina martxan dagoela gogoratzeko baliatu dute prentsaurrekoa. Urtean 25 euro ordainduta, bazkideek hainbat abantaila dute; besteak beste, deskontuak eta doako ikuskizunak.



Jon Sergio zinegotzia eta Arantza Arrazola San Agustineko arduraduna, atzoko aurkezpenaren ondoren.



Olatz Salvador eta Iñaki Salvador.

Olatz Salvadorren eta Iñaki Salvadorren kontzertu intimoa Berrizen

Salvador osaba-ilobek kontzertu berezia emango dute Berrizko Kultur Etxean, Gabonetako egitarauaren barruan. Emanaldia abenduaren 29an izango da, 19:00etan

MUSIKA • A. M.

Olatz Salvador eta Iñaki Salvador osaba-ilobek *Familia artean* emanaldi berezia egingo dute Berrizko Kultur Etxean, abenduaren 29an; saioa 19:00etan hasiko da. Proposamena intimista izan arren, indarrez bete ere bada, izan ere, bakoitzaren unibertso musikalak topo egiten du proposamen honetan. Iñakik pianoa joko du, eta Olatzek gitarra jo eta abestu egingo du. Olatz Salvadorren abestiak dira emanaldiaren bizkarrezurra, baina, hala ere, bikoteak beste

maila batera eramaten ditu abestiak. Olatz Salvadorrek 2014an ekin zion bakarkako ibilbideari, bestelako proiektuetan ere parte hartzen zuen bitartean. 2018an *Zintzilik* diskoa kaleratu zuen, eta hiru urte geroago, 2021ean, *Aho uhal*. Biekin kritikaren eta publikoaren babesa jaso du, bigarrenagaz batez ere. Ibilbide honetan, Euskal Herriko areto ugaritan aritu da zuzenekoak ematen, baita munduan zehar ere. Bestek beste, iaz Asiatik egin zuen bira; Japonian, hain zuzen ere.

Iñaki Salvadorrek lau hamarkada baino gehiagoko ibilbide profesionala du musikagintzan; hamabost disko publikatu ditu eta dozenaka kolaboraziotan parte hartu du; batik bat jazz doinuekin identifikatzen den arren, hainbat testuingurutan aritu da.

Zuzeneko berezi hauek belau-naldi desberdinen arteko zubia ere badira, bai artistikoki eta baita musikalki ere. "Esentzian buzeatu gura dugu, xumea eta autentikoa denagaz emozionatu gura dugu", azaldu dute.

Pagonabarragak laugarren egin du Bizkaiko finalean

Nerea Ibarzabalek jantzi du Bizkaiko Bertsolari Txapelketako txapela; Pagonabarragak laugarren egin du

BERTSOLARITZA • A. M.

Aurten ere Lea Artibaira joan da Bizkaiko Bertsolari Txapelketa; hain zuzen ere, Nerea Ibarzabalek jantzi du txapela, bigarrenegaz segidan. Bizkaiko Bertsolari Elkartearen sorkuntzan parte hartu zuen Begoña Iturriza bilbotarrak jantzi zion. Ibarzabal Jone Uriagaz batera heldu zen buruz burukora. Finalean, Gorka Pagonabarraga izan zen Durangaldeko ordezkari bakarra. Laugarren amaitu zuen, saio txukuna eginda. Durangararren Bizkaiko bigarren finala

izan zen, eta bigarren horretan bere ekarpena handiagoa izan zen. Durangarrak zortziko txiki polita egin zuen, eta bakarkako lanera arte buruz burukora sailkatzeko moduko saioa egin zuen. Txapelketan, Xabat Gallettebeitia sailkatu zen hirugarren. Bere atzetik sailkatu ziren Gorka Pagonabarraga, Onintza Enbeita, Oihana Bartra, Aitor Etxebarriazarraga eta Aissa Intxausti. Bilbo Miribilla bertsosalez lepo bete zen. 4.400 bat ikus-entzule egon ziren bertan.



Nerea Ibarzabal Bizkaiko Txapelketa eta Gorka Pagonabarraga. MAIALEN UGARRIZA ASTOBIZA

Gai librean

Gizatiartzearen aldeko ekintzak eta jarrerak Biblioteketan

Aurreko astean Residentek, Puerto Ricoko abeslari ezagunak, bideo bat kaleratu zuen Palestinako genozidioaren inguruan daukan iritzia emateko. Bertan, bideoaren hasieran, galdera bat egiten dio bere buruari: zer momentutan galdu dugu gizatasuna, gertatzen ari den sarraskia ikusi eta ezer esan gabe geratzeko gai bagara?

Zer egin dezakegu geure arlotik, geure esparrutik, isilik ez gelditzeko? Zeintzuk dira jarduerak edo ekintza eraginkorrak gure desadostasuna adierazteari gehitu eta honi guztiari aurre egiteko?

Gure bibliotekan azaroaren 29an egin genuen Giza Biblioteka nabarmendu nahi nuke. Udaleko Immigratzio Sailarekin elkarlanean antolatzen



Esti Albizu Goikoetxea
Bizenta Mogel Biblioteka

dugun *Bideak gurutzatuz* ekimenaren barruan kokatzen da ekintza hau. Aurten VII. edizioa antolatu dugu.

Giza Biblioteka egitasmoa 2000. urtean sortu zuen Stop the Violence GKEak Danimarkako Kopenhage hirian. Giza Bibliotekaren bidez desberdintasuna goraitzen da, eta sustatu egiten dira elkarrizketa, tolerantzia, ikaskuntza eta beste bizitza-estilo eta kulturetatik datozen pertsonen elkar ulertzea. Ekimen honetarako bi osagai baino ez dira behar izaten: bizipenak kontatzeko prest dauden pertsonak eta istorio horiek entzun gura dituen jendea.

Espazio honetan sortzen diren elkarrizketetan pertsona guztien esperientzia modu berean ikusarazten da. Irakurleen eskura jartzen diren bizitza-istorioek ikasketa eta empatia-komunitatea sortzen dute, liburu

tradizionalek edo adituek lor dezaketen baino askoz handiagoa. Irakurleek ohiko mugetatik haratago dauden egoerak, sentimenduak eta emozioak ezagutuko dituzte.

"Giza liburuak" bizitza-historiak ezagutu eta haien perspektibak ulertzean, ulermen handiagoa sustatzen da, eta diskriminazioa eta gatazkak eragin ditzaketen gaizki-ulertuak gaindi daitezke.

Pertsonak baztertzeko ekintza, hau da, norbait objektu edo estereotipo batera murriztea, bere gizateria indibiduala kontuan hartu gabe, arazo nagusia da gatazka eta arazo sozial askotan. Giza bibliotekak zuzenean ekiten diote arazo horri, espazio bat eskaintzen baitute, non pertsona guztiak uler eta hauteman baitaitezke, azaleko edozein etiketa edo kategoriazioetik haratago.



**Izaro Oliveira
Alberdi**
Txirrindularia
ERMUA | 2005

“Eustrak-Euskadi maila handiko taldea da eta horrelako talde batean sartzeak harrotasuna ematen du”

Café Dromedario Flotamet taldean aritu den txirrindulariak Europako eta Munduko Txapelketetan parte hartu du aurten

TXIRRINDULARITZA • M. ZUAZUBISKAR
Izaro Oliveira Alberdi txirrindulari ermurrak azken lasterketak ditu Duranguesa taldeagaz. Oliveirak urte aparta egin du aurten eta modu ezin hobean borobiltzea lortu du. Ermuko txirrindulariak asmo berria du datorren denboraldiari begira.

Lehenengo eta behin, zer moduz doa denboraldiaurrea?
Ondo doa, baina kontuan hartuta unibertsitateko lehenengo urtea

dela (bioteknologia ikasten dabil), hori doa. Apurka-apurka erritmoa hartzen nabil eta denboraldia prestatzen nago dagoeneko. **Denboraldiaurrean zauden arren, dagoeneko Anoetako belodromoko (Donostia) Gipuzkoa Sarian parte hartzen zabilta. Zelan joan dira lehenengo lasterketak?**

Nahiko ondo doaz. Ahal dudaneurrian entrenatzen nabil, eta erritmoa hartzen. Azken batean, Anoetan jokatzeko diren laster-

keta hauek erritmoa hartzen ere laguntzen dute.

2023a dagoeneko amaitzean da eta urteagaz batera etapa bat itxiko duzu, jubent mailatik 23 urtez azpikoetara saltoa emanda. Zelako balantzea egiten duzu?

Ona. Aurten pistan ibili naiz batez ere, eta ondo joan zait. Europako eta Munduko Txapelketetan egoteko aukera izan dut eta itzela izan da. Lehenengo aldia izan da horrelako mailako lasterketetan egon naizena lehiatzen, eta ikasteko modu bat izan da. Ikasteko urtea izan dela esango nuke, batez ere denboraldi eta maila berriari begira. Gainera, ez neukan buruan Europako eta Munduko Txapelketetara joatea; azken batean, Bioteknologia karreran sartzeko ikasten nabilen eta ezinezkoa zen bizikletan ere ehuneko ehunetan aritzea. Baina, azkenean, Espainiako Txapelketan ondo ibili nintzen, eta bertan egotea lortu nuen.

Ez zenukan buruan Europako eta Munduko Txapelketetan parte hartzea?

Bai, baneukan. Azken batean, beti motibazioaren bat izan behar duzu

entrenatzeko. Baina, egia esan, ez nuen espero.

Pistan aritzeaz gainera, errepidean ere bazabilta. Hala ere, denboraldi honetan pistarako apustu argia egin duzu.

Aurten arte gehiago ibiltzen nintzen errepidean, baina aurten errepidea pistako denboraldia prestatzeko erabili dut. Pistak denbora gutxiago eskatzen du entrenatzeko, eta errepideari denbora gehiago eskaini behar zaio. Horrez gainera, pistan gustura aritzen naiz, ondo ikusten dut neure burua.

Denboraldi honetan geratu zaizu arantzarik, ala denboraldi borobila izan da?

Beti daude hobetzeko gauzak, eta bai, geratu zait arantzaxoren bat. Pistako Espainiako Txapelketan, esaterako, askotan ahaleginu nintzen ihes egiten, gogor borrokatu nintzen, nire asmoa urrezko dominaren bat lortzea zen eta. Baina ezin izan nuen, ez nuen lortu.

Bestalde, Europako eta Munduko Txapelketetan gogoagaz geratu nintzen beste probaren batean ari-

tzeko. Horietxek nire arantzaxoak. **Datorren denboraldian zein taldean ikusiko zaitugu? Baduzu talderen batez ezer lotuta?**

Bai, datorren denboraldian Eustrak-Euskadi taldean arituko naiz, pistako taldean, Berrizko belodromoko taldean. Azken denboraldian lez, helburu nagusiak pistan izango ditut. Pistan zentratuta jarraituko dut eta errepidea pistako denboraldia ahalik eta ondoen prestatzeko erabiliko dut.

Izen handiko talde batez fitxatu duzu, beraz.

Eustrak-Euskadi maila handiko taldea da eta horrelako talde batean sartzeak harrotasuna ematen du. Oso pozik nago Eustrakeko parte izango naizelako.

Zeintzuk helburu dituzu datorren

“Europako eta Munduko Txapelketetan egoteko aukera izan dut, eta han egotea itzela izan da”

“Denok ezagutzen dugu elkar, ondo ezagutzen naute, eta ondo ibiltzeko aukera izango dudala uste dut”

urterako?

Ikasten jarraitu eta ahalik eta ondoen korritzen jarraitzea da nire asmo nagusia. Maila berri batean lehiatuko naiz, eta apurka-apurka maila berri horretara egokitu beharko dut. Beraz, lehenengo urtea ikasteko hartuko dut. Hala ere, lasterketetan maila ona ematea dut helburu.

Eustrak-Euskadin, bai lantaldean eta baita taldekideen artean ere, izen handiko txirrindulariak dituzu: Ana Usabiaga eta Ziortza Isasi, besteak beste. Ikasteko tokirik onena dela esan daiteke.

Esango nuke talde ona izango dela ikasteko eta maila hobetzen joateko. Denok ezagutzen dugu elkar, ondo ezagutzen naute, eta ondo ibiltzeko aukera izango dudala uste dut.

Amaitzeko, noiz eta non ikusiko zaitugu talde berriko kolorekin debutatzen?

Oraindino ez dugu berba egin egutegiaren inguruan. Baina, ulertu nuenagaitik, printzipioz, urtarrilean Anadiako belodromoan (Portugal) jokatu den nazioarteko txapelketara joango naiz, eta ordura arte Anoetako Gipuzkoa Sariko lasterketetan arituko naiz. Otsailean Gipuzkoako Nazioarteko saria izango dugu.

Durangoko Kulturalaren umeen futbol torneoak helburu solidarioa du

Abenduaren 27tik 29ra izango den txapelketan, esne brikak batuko dituzte gero JAED elkarteari emateko



lazio aldiko torneoko irudia. DURANGOKO KULTURALA

FUTBOLA • JOSEBA DERTEANO

Durangoko Kulturalak benjamin eta kimu mailako Sukia futbol torneoak antolatu du abenduaren 27, 28 eta 29rako. Tabira futbol zelaian 33 klub edo ikastetxe bilduko dira, 48 taldegaz. Durangaldetik, Durangoko Kulturala, Amorebieta, Ermua, Ermua Blues, Gertasport, Jesuitak, Kurutzia, Nevers, San Antonio eta Zaldia arituko dira. Egun bateko sarrera hiru euro da, eta egun biko bost euro. 27an eta 28an taldekako fa-

sea jokatu dute, goizean (09:30-13:15) zein arratsaldean (15:30-19:15). Azken fasea hilaren 29an jokatu dute, goizean.

Txapelketak izaera solidarioa ere izango du. JAED elkartearentzat esne batzeko erabiliko dute torneoak. Klub durangarrak esne brik bana eramateko dei egin die bertaraten direnei (familia, enpresa, ikastetxe...). Oraingoan, Cafés Baquek 100 litro esne eman ditu, Kaikuk 500 litro esne, eta Bikote Solarrek 100 litro esne.



Moran, elastikoagaz. FEBICI

Unai Moran abadiñarrak Bizkaiko Kopa irabazi du kadete mailan

TXIRRINDULARITZA • J.D.

Café Dromedario-Flotamet taldeko Unai Moran abadiñarrak Bizkaiko Rural Kutxa Kopa irabazi du kadeteen mailan. Hamaika lasterketako egutegian, erregulartasuna eta lehiarako gaitasuna izan dira bere dohaien onenak. Lasterketa guztietan gutxienez punturen bat batzea lortu du. Muskizko, Getxoko eta Trapagarango probetan, bigarren postuan amaitu zuen. Bizkaitik kanpora ere zeresana eman du. Nafarroan Iturmendiko Saria irabazi zuen esprintean eta Zizurkilen bigarren izan zen. Horrez gainera, pistan ere nabarmendu da: bigarren izan zen Gipuzkoa Sarian, eta Espainiako txapelketan txapeldun geratu zen taldeka.

Finalistak erabakita, txapelak banatzea falta da Olazarren

Abenduaren 31n, arratsaldean, hiru final jokatu dituzte Zaldibarko pilotalekuan txapelketari amaiera emateko

PILOTA • J.D.

Etorkezuneko Olazar Pilota Txapelketa amaitzeko dago. Finalistak erabakita, aurtengo irabazleak nortzuk diren jakitea besterik ez da falta. Horretarako, urteko azken egunera arte itxaron behar da, finalak abenduaren 31n jokatu dira eta, Gabon zahar egunetan, arratsaldean.

Gizonen lau eta erdiko finalista biak Amiano eta Etxeberria izango dira. Amianok 22-21

irabazi zion Irribarriari, eta Etxeberriak 22-18 Apezteari.

Joan zen astean, Enara Gamindek lortu zuen finalerako sailkatzea lau eta erdikoan, eta Zubizarreta eta Lizeaga bikoteak gizonen binakakoan. Azken finalerdiak bertan gauetan jokatu ziren: Etxegarai eta Garai aritu ziren lau eta erdian, eta Murua-Cuairan eta Alberdi-Gabirondo bikoteak binaka. Emaitzak anboto.org webgunean daude.



Abenduaren 31n jokatu dituzte finalak Zaldibarko Olazar pilotalekuan.

Jokaldia

Gabonak, stop!

Atzo San Tomas, eta laster Olentzero, Gabonak, Gabon zaharra, urte berria... Bai, 2023 bukatzen ari da eta gure talde guztiek indarra berriztuko dute 2024an topera hasteko.

Egunotan umeen eta gazteen maila ezberdinetako Gabonetako topaketak egongo dira eta denek saskibaloiaz gozatzeko aukera izango dute. Zaldibarren, Zornotzan, Durangon... saskibaloia protagonista izango da. Ligeak atsedean hartuko dute, baina saskibaloia ez da geldituko eskualdean!

Era berean, gure taldeek, orain arte landu eta jasotakoaren hausnarketa egingo dute eta denboraldiaren bigarren zatirako planteamenduak eta prestaketak landuko dituzte, urteagor hasi eta topera bukatzeko. Horre-



Unai Zamalloa Zubiaurre
Saskibaloia

Gure taldeek orain artekoa hausnartu eta aurrera begirako planteamendu eta prestaketak landuko dituzte

Ezin dut amaitu denon ahotan dagoena aipatu dabe. Gernikan zein edozein tokitan, 'gehiagorik ez'

tan arituko dira Tabirako Baque talde nagusi biak. Neskek, azken partiduan erakutsitako hobekuntzarekin eta lan onarekin jarraitu behar dute, konfiantza berreskuratu eta sailkapenean dagoen lekura itzultzeko. Talde langilea da eta kasu batzuetan zorte txarra izan du. Aurrera, neskak! Mutilak, oster,

goiko postuetan daude, nahiz eta azken partiduetan ez dabilzan nahi bezain erregular. Baina taldea goian ibiltzeko ondo bideratuta dago. Jarraitu gogor!

Zornotzako mutilen aurtengo hasiera ez da betikoa izan Zilarrezko LEB mailan. Txarto ohituta gaude... Aurten, berdintasuna da nagusi eta ikusten den moduan edozein taldek irabazi diezaioke aurkariari. Zamora Enamora taldea izan ezik, beste talde guztiak bi partiduren barruan borrokan dabilza sailkapenean. Aurrera!

Zornotzako neskak, oster, Lehenengo Mailan hasiberriak dira eta Tabirakorekin batera daude sailkapenean. Aurrera!

Ezin dut amaitu egunotan denon ahotan dagoena aipatu gabe. Gernikan zein edozein lekutan, 'gehiagorik ez!' Amaitzeko, zorionak eta Urte Berri on denoi.

Bitxikeriak

ANBOTOk istorio eta gertakari bitxi baten baino gehiagoren berri eman du aurten. Urdax Magunazelaia eta Martins Licisek Abadiñoako probalekuan eginiko indar erakustaldia, National Geographic aldizkariko kazetari batek Mañariko Angurreta Arte Espazioa bisitatu zueneko, Van Vleuten ziklistak Oier Casadori bere elastikoa erraialatu zioneko... Hauek dira 2022ko istoriorik bitxienak.

Probalekua lepo indarra sobera duten lagun biren erakustaldian

Martins Licis 'Munduko gizonik indartsuena' legez ezaguna den atleta letoniarrak eta Urdax Magunazelaia abadiñarrak indar erakustaldia egin zuten apirilean, Abadiñoako probalekua bete zu-

tenen gozamenerako. Licisek, egunetako entrenamenduak egin eta gero, 255 kiloko harria bizkarrreratu zuen. Ondoren, Abadiñoan bizi zituen abenturen bideoa publikatu zuen Youtuben.



Martin Licis —ezkerrean— eta Urdax Magunazelaia besoak jasotzen erakustaldia amaituta.

AEBetan eta Japonian ere erabiltzen duten gerra-joko durangarra

'La Guerra de la Triple Alianza' jokoak Martinezena da

Orain lau urte sortu zuenetik, Pedro Iñaki Martinez durangarraren *La Guerra de la Triple Alianza* estrategia-jokoa mundura hedatu da. AEBetan eta Japonian, besteak beste, "oso harrera ona" izan du. "Japonian agortu egin da, eta, AEBak joko historikoen sorleku direla jakinda, nire jokoa han saltzea ederra da", dio Martinezek. Gaztelaniaz eta ingelesez jokatu daiteke, eta italierara itzultzen dabilta. Gerora, jokoaren aldaerak ere sortzen joan dira.



Pedro Iñaki Martinez, bere jokogaz.

Van Vleutenek "eskerrik asko" dioen elastikoa ematen dizunean

Movistar Team taldeko Annemiek van Vleutenek Giro Donne itzulia irabazi zuen uztailan. Esker oneko keinu modura, txirrindulari herbeheretarrak elastiko bana erraialatu zien taldeko kide guz-

tie; tartean, Oier Casado mekanikari abadiñarrari. Elastikoan euskarazko mezu bat idatzi zuen. Bertan eskerrak ematen dizkio Casadori, bizikletak beti prestatzeko eginiko lanagaitik.



Oier Casado, eta, ezkerrean, Van Vleutenen elastikoaren eta eskaintzaren detailea.

Hasieran pinaburua zirudien... baina ez, granada bat zen

Ezohiko objektu batek familia baten arretra erakarri zuen azaroan, Zabalanditik gertu mendian zebiltzala. Lehenengo begiratuan pinaburu bat zela iruditu zitzaion, jostailuzko kantinplora baten traza hartu zioten gero, baina ez bata eta ez bestea: eskuan hartu eta pisutsua zela ikusita, benetako granada bat zela jabetu ziren. Ertzaintzari abisatu zioten eta honek Lehergailuak Indargabetzeko Unitate bat bidali zuen egunean bertan. Granada hantxe bertan neutralizatu zuten. Zantzuen arabera, baliteke gerra zibileko lehergailua izatea.



Zabalanditik gertu aurkituriko granada.

Gasolindegiko terraza biltzeko gune, izurtzarrentzat eta ingurukoentzat

Gasolina kotxerako, eta freskagarriak lagun artean

Izurtzako Herriko taberna itxita egoniko hileetan, gasolindegiko terraza izan zen edari baten bueltan sozializatzeko gune bakarra herrian. Izurtzarrak eta herri

gehiagotakoak joaten dira. "Lasaitasuna", "aparkatzeko erraztasuna" eta "edari merkeagoak" dira hango bezeroek nabarmentzen dituzten abantailetariko batzuk.



Peio, Iñigo eta Beñat durangarrak, gasolindegiko terrazan.

Tetsuro Maedak Michelin izarra lortu du inaugurazio urtean

Tetsuro Maedak (Japonia, 1984) maiatzean zabaldu zuen Txispa jatetxea, Axpen. Sei hilabetera, Atxondon bizi den sukaldariak bere lehenengo Michelin izarra lortu du. Ez zuela espero dio: "Aitortu behar dut sari banaketan nire izena entzun nuen arte ez nuela imajinatu ere egiten". Baina eginko lanaren fruitua izan da.

Bittor Arginzoniz sukaldari ezagunaren ikasle izanikoak haren jatetxetik gertu proiektu berria martxan ipintzeak ika-mika sortu du. Hala ere, Tetsurok berba onak izan ditu Arginzonizi buruz.



Tetsuro Maeda, bere jatetxean.

Juan Antonio Izagirre, erlojugileen belaunaldiari jarraipena emanez

Izagirrek Ermuko elizako kanpandorreko erlojua garbitu du

Francisco Izagirre aitita erlojugilea zen ogibidez, eta harengandik sortu zitzaion erlojuekiko ikusmina Juan Antonio Izagirreri. Aurten, Ermuko elizako kanpandorreko bazter batean 50 urtez gordeta egon den Penton erlojua garbitu du. 1772ko erlojua da, 100 kilokoa. "Pazientziagaz eta presarik barik eginiko lana izan da, denbora librean nuenean eginikoa. Hagin guztiak banan-banan garbitu ditut, zirrikietan pilaturiko zikinkeria... Pentsa zenbat urtean egon den bazter batean ezkutatuta", esan zuen.



Izagirre, kanpandorreko erlojua ondoan

Oporretako plana: bizikleta eskuan eta ibili munduan

Ander Moreira eibartarra eta Kepa Astorkia eta Jon Urbieta berriztarrak bizikleta zaleak dira eta makina bat kilometro egin dute pedalei eraginda. Joan zen udako oporretan, 800 kilometroko Basa-

jaun proba egin zuten. Aurretik beste hainbat abentura bizi izan zuten bizikleta gainean. Behin Alemaniatik Euskal Herrira etorri ziren, eta beste behin Andaluziatik bueltatu ziren.



Ander Moreira, Kepa Astorkia eta Jon Urbieta.

Sexu berekoen euskal ezkontza lehenengoz, mugarriak apurtuz

Ekaitz Herrerak eta Koldo Rodriguezek antzestu dute

Abadiñon euskal ezkontza egin dute aurten, lau urterik behin egiten den tradizio handiko ospakizuna, eta berritasun nagusi bat izan du: sexu bereko bikoteak antzestu du ezteia.

Ezkontza mediatikoa izan zen. ETBko albistegietara heldu zen, baina eskusiba ANBOTOK eman zuen. Seguruenik hauxe izan da prentsa arrosatik gertuen egon garen momentua.



Ekaitz Herrera eta Koldo Rodriguez, euskal ezkontzan.

National Geographic-eko kazetaria, Mañariko Angurretan

Mañariko Angurreta espazioak aldizkari espezializatuen arreta erakarri du. Esaterako, National Geographic Traveller-entzat erreportajeak egiten dituen Daniel Stables kazetariak bisitatu zuen abuztuan, Urkiola Landa Garape-

naren bitartekaritzari eskerrak. Stablesek Mañariko arte espazioa goraiatu zuen. "Txunditu egin ninduen. Paisaiaren erabilera zoragarria da, ondare industrial abangoardiagaz uztartzen duena", adierazi zuen.



Daniel Stables, Bilbao Turismoko Aitor Infante eta Landa Garapeneko Irene Zuazo.

Garaiko udaletxeko jesarleketan dauden izenen historia

Garaiko udaletxeko areto batean herriko baserrien izenekin idatziriko jarlekuak daude, sasoi bateko batzar eta botere ahalmenen sinbolo legez. Haien historia kontatu genuen urriko artikuluan. Jarle-

kuok sasoi bateko boterearen eta erabakigunearen ispilu dira. Etxe bakoitzeko ordezkariak elkarrengaz batzen ziren, euren interesak defendatu eta herriko gorabeherei buruzko erabakiak hartzeko.



Udalbatzar aretoaren ondoko gelako jesarlekuek izenak inskribatuta dituzte.



ETXETXO
INMOBILIARIA
F.J. Zumarraga, 11 - 946 814 049 • DURANGO
www.inmoetxetxo.com



AMBOTO
INMOBILIARIA
Sanagustinalde, 4 - 1 ezk. • 48200 DURANGO



ISD Inmobiliaria
del Duranguesado
Askatasun etorb. 10 • DURANGO • 946 816 666
www.inmoduranguesado.com
inmoduranguesado@gmail.com



Fernando Uribe
AGENCIA INMOBILIARIA
Barrenkalea, 15 behe • DURANGO
Tel.: 946 816 423 • www.fernandouribe.es



DURANGO
Logela bakarreko atikoa. Egongela-sukaldea eta komuna dutzarekin. Igogailua. Bizitzen sartzeko moduan.
193.000€ C.E.E. E



IURRETA
60 m². 3 logela, komuna, egongela eta sukaldea. Bizitzen sartzeko moduan. Igogailua.
155.000€ C.E.E= G



MIKELDI
85 m². 3 logela eta 2 komun. 2 terraza. 85 m². 3 logela eta 2 komun. 2 terraza.
226.000 € C.E.E= E



DURANGO
60 m². 3 logela, egongela, sukaldea eta komuna.
119.000 € C.E.E= G



IURRETA
85 m². 3 logela, sukaldea, despentsa, egongela eta komuna. Terraza. Eguzkitsua.
159.000 € C.E.E= E



DURANGO
Logela bakarreko apartamentu berria. Ganbara. Gazteentzako egokia.
190.000€ C.E.E= A

// ETXEBIZITZAK SALGAI

DURANGO: Erretentxu. 3 logela, sukaldea, komuna eta egongela. balkoia.

DURANGO: Fray Juan de Zumarraga. 2 logela, sukaldea, komuna, egongela eta despentsa. Igogailua. Berriztatuko. Gas instalazioa. Ikuspegi ederrak.

DURANGO: Askatasun etorbidea. 3 logela, sukaldea, egongela, eskegitokia eta 2 komun. Garajea eta ganbara.

ABADIÑO: Etxeazpia. 3 logela eta 2 komun. Balkoia. Ganbara.

BERRIZ: 2 logela, egongela terrazarekin, sukaldea eta komuna. Garajea eta trastelekua.

BERRIZ: 3 logela, komuna eta egongela. Ganbara. Eguzkitsua. Merkea.

ATXONDO: 2 logela, komuna, sukaldea eskegitokiagaz, despentsa eta egongela.

//LURSAILAK SALGAI

TABIRA: 1.445 m²-ko lursaila. Durangotik oso gertu. Laua.

IURRETA: 5 hektarea inguruko lursaila. Abeletxe bat egiteko aukeragaz. Sarbide ona.

//BASERRIAK ETA TXALETAK SALGAI

ABADIÑO: Etxezurin kokatua. 300 m². Berriztatuko. Lursailarekin. Ganbara.

BERRIZ: Andikona auzoa. Baserri ikusgarria, berriztatuko. Teilatua eta estruktura eginda. Ikuspegi ederrak. 7 hektareako lursailagaz.

BERRIZ: Eitua auzoan. Baserri ederra. Berriztatuko. Lursail ederra inguruan. Kokapen eta ikuspegi politak.

ATXONDO: AXPE. Baserri ederra salgai. Berriztatuko. Kokapen izugarria

MAÑARIA: 3 solairuko etxe ederra. Herri erdian. Udaletxe ondoan. 160 m² solairu bakoitzean. Aukera ederra Mañaria erdian bizitzeko.

MENDATA: Lamikiz auzunea. Bizitza biko baserria. Berriztatuko. Eguzkitsua. Prezio interesgarria.

//BULEGOAK ALOKAIUAN ABADIÑO

30 m²-tik gorako bulegoak. 350 €-tik hasita. Argia eta wifia barne.

//GARAJE ITXIAK SALGAI

Durango, garaje itxiak salgai 25.000 €-tik aurrera.

//LOKALAK ALOKAIUAN

Alde Zaharrean, hainbat tamainatako lokalak alokairuan. Etorri eta galdetu.

//LOKAL INDUSTRIALA SALGAI

MATIENA: 460m²-ko lokala salgai. Bulegoa, komuna eta aldagela. Oso egokia.

www.inmoduranguesado.com



IURRETA 57 m²
3 logela
URALDE: Halla, egongela, sukalde jantzia, 3 logela eta komuna (dutxa erretilua). Balkoia. Etxe osoak kanpora ematen du (hegoaldea). Leku onean kokatua. Zonalde berdeak eta zerbitzuguneak gertu. 11 m²-ko ganbara.
150.000 € C.E.E: G



DURANGO 95,5 m²
4 logela
EZKURDI: Egongela handia, sukaldea, 4 logela, 2 komun eta eskegitokia (patioa) Igogailua. Etxe erdiak kanpora ematen du (iparraldea) Leku onean kokatua. Zonalde berdeak eta zerbitzuguneak gertu. ITE-a oraintsu pasatakoa. Berriztatuko, norbere gustora jartzeko aukerarekin. Garajea aukeran + 19.500 € (etxebizitzatik gertu).
199.000 € C.E.E: G



DURANGO 80,30 m²
3 logela
ASTEPE AUZOA: Halla, egongela, sukalde jantzia, 3 logela, 2 komun eta eskegitokia. galeria. Etxe osoak kanpora ematen du (ekialde-mendealde) Argitsua. Leku onean kokatua. 6,5 m²-ko trastelekua eta 10,80 m²-ko garajea. Hobekuntzak behar ditu.
219.000 € C.E.E: F



DURANGO 60 m²
2 logela
ASKATASUN ETORBIDEA: ERAIKUNTZA BERRIA, ATIKOA. Egongela, sukaldea, 2 logela, komuna eta eskegitokia. 40 m²-ko 2 terraza. Estreinatuko. Lehenengo materialak. Etxe osoak kanpora ematen du (hego- iparraldea). Leku onean kokatua. Zonalde berdeak eta zerbitzuguneak. Herriguneko sarrera eta irteeratik gertu. Trastelekua.
290.000 € + BEZ C.E.E: A



DURANGO 85 m²
3 logela
ERAIKUNTZA BERRIA: Egongela, sukalde jantzia 3 logela eta 2 komun (dutxa erretilua) 2 balkoi. Zonalde berdeak, zerbitzuguneak eta herriko irteera eta sarreratik gertu. Argitsua. Lehen mailako materialak. Garajea eta trastelekua barne. Estreinatuko.
310.000 € + BEZ



MATIENA
ERAIKUNTZA BERRIA: 91,06 m²-tik aurrera. 4 logela. Kalitate oneko materialak. Garajea eta trastelekua barne. Estreinatuko.
280.000 €-tik aurrera + BEZ

//DURANGO

ANTSO ESTEGIZ: 2 logela, sukaldea balkoiarekin, egongela eta komuna. Trastelekua. Igogailua. **LEHEN 192.000 € ORAIN 175.000 € / E.E.Z=F**

ASKATASUN ETORBIDEA: 3 logela, sukaldea, egongela, despentsa eta 2 komun. Igogailua. Garajea eta trastelekua. **LEHEN 320.000 € ORAIN 298.000 € / E.E.Z=E**

ASKATASUN ETORBIDEA: 3 logela, sukaldea eskegitokiagaz, egongela eta 2 komun. Igogailua. Garaje itxia. **LEHEN 280.000€ ORAIN 250.000 € / E.E.Z=E**

BARRENKALEA: 2 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Igogailua. Berriztatuko. **LEHEN 150.000 € ORAIN 138.000 € / E.E.Z=G**

BARRENKALEA: Konpontzeko dagoen eraikina. Sotoa, behe-solairua eta 3 pisuko altuera. **350.000 € / E.E.Z=F**

JUAN DE OLAZARAN: 3 logela, sukaldea balkoiarekin, egongela eta 2 komun. Igogailua. Trastelekua eta garajea. **385.000 € / E.E.Z=B**

KOMENTU KALEA: 2 logela, sukaldea, egongela balkoiarekin eta komuna. Igogailua. Ganbara. **187.000 € / E.E.Z=E**

SANTIKURUTZ KALEA: Etxebizitza bifamiliarra eraikitzeko 600 m²-ko lurzorua. **LEHEN 550.000 € ORAIN 495.000 €**

//BERRIZ

MURGOITIO AUZOA: Berreraikituko baserria lurzoruagaz. **280.000 €**

//GARAI

MOMOTIO AUZOA: Etxebizitza eraikituko lursailak. Aukera ezberdinak.

//IURRETA

DANTZARI KALEA: 2 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Igogailua. **LEHEN 153.000 € ORAIN 146.000€/ E.E.Z=E**

//IZURTZA

ELIZALDE AUZOA: 4 solairuko etxea. 3 logela, 3 komun, sukaldea, garbitokia eta egongela. Terraza. Lorategia eta garajea. **620.000 / E.E.Z=E**

//OTXANDIO

ZELAIETA AUZOA: Baserria. 40.355 m²-ko lursaila. 4 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Balkoia. **LEHEN 348.000€ /ORAIN 280.000€ E.E.Z=G**

//ZALDIBAR

BOLATOKI KALEA: 2 logela, sukaldea, egongela balkoiarekin eta komuna. Igogailua. **130.000 € / E.E.Z=G**

//GARAJEAK SALGAI / ALOKATZECO

Durango eta Iurretan, aukera desberdinak: garaje itxiak, partzelak eta partzelak trastelekuarekin.

//LOKALAK SALGAI / ALOKAGAI

Informazio gehiago bulegoan.

//ETXEBIZITZAK ALOKAGAI

Informazio gehiago bulegoan.

//BERRIAK

MONTORRETA KALEA: 3 solairutako pabilioia, 1.309 m² inguruko azalerarekin. **728.000 € /E.E.Z=SALBUETSITA.**

Botikak

BARIKUA, 22 · 09:00-09:00

BALENCIAGA,
EZKURDI PLAZA 8 - DURANGO

MELERO, SAN PEDRO 31 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ,
URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

SARASKETA,
LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

IRUARRIZAGA,
SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA

ZAPATUA, 23 · 09:00-09:00

GAZTELUMENDI,
J.A. ABASOLO 2 - DURANGO

SARASKETA,
LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

09:00-13:30

ETXEBARRIA,
MONTEVIDEO ETORB. 2. - DURANGO

BALENCIAGA,
EZKURDI PLAZA 8 - DURANGO

BAZAN, URIBARRI 5 - DURANGO

SARRIA, SASIKOA 17 - DURANGO

DE DIEGO,
INTXAURRONGO 22. - DURANGO

CAMPILLO,
MONTEVIDEO ETORB. 24 - DURANGO

NAVARRO, ARTEKALEA 6 - DURANGO

SANTAMARIA,
ERREKAKALE 6. - ELORRIO

FARMAZIA MATIENA,
TRAÑABARREN 15. - ABADIÑO

MELERO, SAN PEDRO 31 - ZORNOTZA

GOIRIA, SABINO ARANA 6 - ZORNOTZA

RUIZ,
EL ALTO-BIDE ZAHAR 14 - ZORNOTZA

IRUARRIZAGA,
SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA

GUTIERREZ, TXIKI OTAEGI 3 - ZORNOTZA

09:00-14:00

IRIGOIEN,
BIXENTE KAPANAGA 3 - IURRETA

09:00-22:00

SANCHEZ,
URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

DOMEKA, 24 · 09:00-09:00

ETXEBARRIA,
MONTEVIDEO ETORB. 2. - DURANGO

SARASKETA,
LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

ASTELEHENA, 25 · 09:00-09:00

IRIGOIEN,
BIXENTE KAPANAGA 3 - IURRETA

SARASKETA,
LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

MARTITZENA, 26 · 09:00-09:00

UNAMUNZAGA,
MURUETATORRE 2C - DURANGO

SARASKETA,
LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ,
URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

IRUARRIZAGA,
SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA

EGUAZTENA, 27 · 09:00-09:00

CAMPILLO,
MONTEVIDEO ETORB. 24 - DURANGO

SARASKETA,
LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ,
URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

IRUARRIZAGA,
SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA

EGUENA, 28 · 09:00-09:00

GAZTELUMENDI,
J.A. ABASOLO 2 - DURANGO

SARASKETA,
LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ,
URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

IRUARRIZAGA,
SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA

Zorion Agurrak

ZORIONAK@ANBOTO.ORG · EGUAZTENEO 14:00AK ARTEKO EPEA



Zorionak guztioi!


GOZATU GOZATEGIA

Hamabostean behin jasotako zorion-agurren artean **tarta bat zotz egingo dugu.** Zozketan parte hartzeko bidali kontaturako datuak zorion-agurrekin batera.

Ermodo, 11 DURANGO
Tel.: 946 201 663
661 40 14 00
gozaturango@gmail.com
Gozatu Gozategia
gozatugozategia



Zorionak, **Marina**, zure 5. urtebetetze eguna poz-oz ospatu dozu, egunik onena! Espero dogu hurrengoak be oso onak izatea eta zurekin jolasten eta kantuen egitea.



Abenduaren 23an **Ninbek** 6 urte egiten ditu. Zorionak familia guztiaren partez eta egun ederra pasa dezazula.

Eguraldia

ZAPATUA 🌧️ 8° / 12° ☁️

ASTELEHENA 🌞 4° / 14° ☀️

EGUAZTENA 🌧️ 5° / 14° ☁️

DOMEKA 🌧️ 6° / 13° ☁️

MARTITZENA 🌞 3° / 12° ☀️

EGUENA 🌧️ 8° / 16° ☁️

Eskelak



Esther Usabiaga Beaskoetxea

Iurretan hil zen, 2022ko abenduaren 18an



*Izar argitsu bat doa
Laixiartik Gorbealara
Esther, argitu gaitzazu
Iristen danean gaba
Iristen danean gaba
Izar argitsu bat doa
Laixiartik Gorbealara*

Ijorretako lagunek.



Betikoak
flexografía

BULEGORAKO
ZIGILUAK
FOTOLITOAK

946 202 241
Bixente Kapanaga, 9
48215 IURRETA



Arrike
Liburudenda

Kalebarria z/g - Durango
Tel.: 946 201 893
Faxa: 946 816 403

